


(EZ) **AMATASUNAK**
IKUSPEGI **FEMINISTATIK**
JARDUNALDIAK






AURKIBIDEA

Hitzaurrea	5
Egitaraua	6
Aurkezpena	7
1. Mahai inguruak: (Ez)amatasunak ikuspegi feministatik. desioak, kontrolak eta denborak	8
2. Mahai inguruak: Amatasunen arrastoak: ibilbide demografiko, historiko eta feministak	31
Amatasuna ez da irla bat. Nola (ez) egin ama? Estolda intimo-politikoak. (Ez)amen ahotsak...	57
Erakusketa eta solasaldia: D'embarassos, maternatges i masculinitats	76
“Amor de madre” ikusentzunezko proiektuaren zine foruma	84
Amatasunen korapiloak askatzeko estrategia feministak	87
Kotxe zuria	90

Egin, berregin desegín, berregín

DONOSTIAKO TABAKALERAN
AZAROAREN 11 ETA 12AN

(EZ) AMATASUNAK IKUSPEGI FEMINISTATIK JARDUNALDIAK



AZAROAK 11, OSTIRALA

9:30	Ate irekiera.
10:00	Ongi etorria. Egin, desegin, berregin.
10:30	Mahai ingurua: (Ez)amatásunak ikuspegí feminista: desioak, kontrolak eta denborak. (No)maternidades desde perspectivas feministas. Deseos, control y tiempos. Marina Sagastizabal, Anna Molas eta Diana Oliver.
12:30	Atsedena
13:00	Erakusketa eta solasaldia: Exposición y conversación: <i>D'embarassos, maternatges i masculinitats.</i> Gràcia Camps Miró, Maider Beristain eta Leire L. Ziluaga
	"Amor de madre" ikusentzunezko proiektuaren zine foruma. Cine forum del proyecto audiovisual "Amor de madre". Maria Romero Garcia.
14:30	Atsedena
16:30	Anari.
17:00	Amatasuna ez da irla bat. Nola (ez)egin ama? La maternidad no es una isla. ¿Cómo (no)hacernos madres? - Bizi penak partekatzeko tarte. Compartiendo vivencias. - Bertsolariak: Uxue Alberdi eta Ane Labaka. - Estolda intimo-politikoak: (ez)amen ahotsak. Atravesando lo íntimo-político: voces de (no)madres.

AZAROAK 12, LARUNBATA

10:00	Mahai ingurua: Amatasunen arrastoak: ibilbide demografiko, historiko eta feministak. Las huellas de las maternidades: recorridos demográficos, históricos y feministas. - Marta Luxan, Lore Lujanbio, losune Fernandez Centeno, eta Metxi Bogino. - Parean Elkartea, Estitxu Fernandez, Erika Lagoma, eta June Fernandez.
12:00	Atsedena
12:30	Taldeko eztabaidea: Amatasunen korapiloak askatzeko estrategia feministak. Reflexión grupal. Estrategias feministas para desenredar(nos) la maternidad.
14:00	"Nik uste dut...". Beatriz Egizabal.
14:30	Bazkaria: guziontzako luntxa
16:00	(Ez)amatásunen inventario bat: Helduentzako* ahozko narrazioa. Mireia Delgado. *Helduentzako ahozko narrazioa den arren, haurrak ongi torriak izango dira.
17:00	Amatasunaren itzal literarioak. Uxue Apaolaza, Iratxe Retolaza, Danele Sarriugarte, Arantxa Urretabizkaia.
19:00	Artefaktu feministen berrirakurketa. Mursego.



HITZAURREA

Eskuartean duzun txostena, pasaden azaroaren 11 eta 12an Tabakaleran egin ziren *Egin, desegin, berregin.* (Ez)amatasunak ikuspegি feministik jardunaldietan gertatutakoaren bilduma da. Hori osatzerakoan parte hartzaileek bidali dizkiguten testuak hartz ditugu oinarri gisa. Topatuko dituzu mahai inguruetako hitzartzeak, ekitaldietako testigantzak, ekimen batzuei lotutako hitzak eta talde eztabaideetako ideia nagusiak. Zoritzarrez hemen ez dago jardunaldiek emandako guztsia, baina gertatutakoaren lekuko ahal den eta osatuena jasotzen ahalegindu gara. Txostena jardunaldien itxiera gisa planteatzen dugun arren, beste hasiera batzuen abiapuntua ere izan nahi du.

Arrasto sakona utzi zuten jardunaldietan entzun eta sentitutakoek. Eta ez da gutxiagorako, gure gorputzak zeharkatzen dituen auzi honek ezin baitzuen bestela pasa. Lortu genuen (ez) amatasunari buruz hitz egiteko plaza aberats bat sortzea. Beste behin, ahizpatasuna izan genuen lotura eta feminismoa argi. Horri esker heldu ginen korapiloak bistaratzera, zalantzak mahai gaineratzeria, zauriak agertzeria eta hurkoa jasotzeria. Gai honekiko askotariko iritzi, esperientzia eta ereduak ezagutu genituen eta horri esker hain beharrekoak genituen irudi konstelazio eraldatzaileetara hurbildu ginen. Ikusi genuen gure desioek badutela lotura estua egitura sozialekin eta, gainera, ez direla zapalkuntza eta indarkerietatik salbu. Mandatu sozial honek ama egin, ez egin eta oraindik izenik ez duten lekuak zeharkatzen ari garen emakumeongan* hartzen duen formez zein ñabardurez aritu ginen. Aurrerantzean zaintzari buruz gogoetazeroan jantziago goaz, eta atzo bezala gogotsu helduko diogu bizitzak erdigunean jartzeko borrokari. Finean, hori baita gure utopia.

Pazientziak, mimoz, ilusioz, enpatiaz eta dardaraz heldu diogu erronkari eta epe laburrean honek izango du jarraipenik. Erronkak gatzik gabeko itsaso baitira saiatzen ez badira. Laster arte bidelagun.

AURKEZPENA

Egin, desegin, berregin. (Ez)amatasunak ikuspegi feministatik aztertzeko jardunaldiak antolatu ditugu Emagin Elkartetik. Gure buruari atxiki diogun helburuarekin antolatu ditugu jardunaldiak: Euskal Herria feministea bilakatzea, eta burujabetza prozesuan sakontzea. Horregatik, uste dugu ezinbestean heldu behar diogula emakume* guztiok zeharkatzen gaituen gai bat: amatasuna. Eta egia esateko zalantza asko izan ditugu horiek antolatzeko; izan ere, gai konplexua da, hari asko ditu eta askotariko esperientziak. Horiek osatzeko feministea askorengana jo dugu, korapilo horiek zein diren identifikatu eta egitarauari forma emateko. Badakigu auzi honek dituen erpin guztiak ezin direla jardunaldi batzuetan landu, baina pozik gaude egindako kontrasteekin eta jasotako ekarpenekin. Gaur, orain, hastera doana azken hilabeteetako ahaleginaren emaitza da, Mugimendu Feministak urteetan egindako lanaren ondorio, era berean.

Oso gai konplexuaren aurrean gaude. Ez dago zalantzak. Errebeldiak, bakardadeak, epaiak, armairuak, kulpak, iruditeriak, zalantzak, esperientziak, desioak, presioak... Askotarikoak dira amatasunak sortzen dituenak. Iza aukera, esperientzia, erabakia, ezintasuna edota uko egiten diogun zerbait, emakume* ugari zeharkatzen gaituen gaia da. Horregatik esaten dugu (ez)amatasunarena esperientzia kolektiboa dela. Are, izaera guztiz politikoa duen talde esperientzia da eta horregatik da feminismotik landu beharrekoa. Era berean, oso era intimo eta pertsonalean eramatzen diren kontuek zeharkatzen dute, eta horrek gure erabakimenarekin zein erraiekin lotzen gaitu. Eta ez dugu ukatuko, min, zauri, ulermen, epai, poz... asko sortzen dituen gaia da.

Gure derrigorrezko destino izan da, instituzio patriarkal gisa, eta horregatik eztabaidea ekidin ezina izan da emakume* askorentzat. Halaber, izan da eta da emakume* askoren desio. Argi dago amatasunak askotariko biziaren jasotzen dituela, eta horren adibide izango dira jardunaldiak. Hausnarketa feministea sustatu nahi dugu, eta eztabaideko zein elkartrukerako gune bat sortu, denok aberasteko.

Helburu orokor horrekin antolatu ditugu, baina badira beste batzuk. Batetik, askotariko amatasun ereduak ikusarazi eta esperientziak ezagutu nahi ditugu, ama izateko aukera bakarrari aurre egiteko, eta diskurso zein praktika esenzialista eta diskriminatzaleei aurre egiteko. Bestetik, amatasunen gainean sustatu diren iruditeriak aztertu nahi ditugu eta beste irudi konstelazio batzuk sortu, eraldaketarako. Gainera, identifikatu nahi ditugu ondoezak, zein indarkeria motek gurutzatzen dituzten gure hautuak, nola lotzen diren egitura sozialarekin eta zer egin behar dugun horiek osatzeko. Azkenik azken urteetan sortu diren teoria, diskurso eta estrategia feministak ezagutu nahi ditugu, gurasotsun komunitaria salto egiteko, beste senidetasun era batzuk eraikitzeko eta familia heteropatriarkala arrakalatzeko.

Azken finean, amatasunak ikuspegi feministatik aztertu nahi ditugu, atzean dituen galderak, hitzak, egiturak eta ertzak topatzeko, eta amatasunak egin, desegin eta berregiteko.

Azken sasoian, bizitzak erdigunean jarriko dituen gizarte eredu justuago bat aldarrikatzen gabiltza eta horri lotuta gure zaintza sistema jarri dugu jomugan. Bada, bizitzaz eta zaintzaz ari garen honetan, ezinbesteko da amatasunak gizarte erakunde gisa duen papera aztertzea. Halaber, XXI. mendeak

bere dituen ezaugarriekin batera aztertu behar da (ez)amatasunen afera. Aldatu egin baita emakumeok lan merkatuan dugun presentzia, arlo produktibo-publikoak gure bizitzetan duen lehentasuna, harremanak eraikitzeko erak, sare sozialak... Horrek guztiak begirada eguneratzea eskatzen duela uste dugu.

Praktika onen dekalogoa

- Jardunaldi hauetan (ez) amatasunari buruz hausnartuko dugu, baina egingo dugu ikuspegi feministak batetik eta gainera, errespetuz.
- Bakoitzak bere pentsatzeko eta egiteko moduak ditu, ez dugu inor epaituko horregatik.
- Ondokoak dioena entzun eta enpatia ariketa bat egingo dugu, bakoitzak berea pixka bat mugituz, zabalduz.
- Zalantza, zaurgarritasuna, sentiberatasuna, ezegonkortasuna, txikitasuna eta arrarotasuna, ondo etorriak dira.
- Gure arteko aniztasuna, aberastasun iturri da: hori onartu eta indartuko dugu bakoitzaren ezberdintasunetik abiatuz.
- Korapiloak eta gatazkak garapen pertsonal eta kolektiboaren parte dira, baina ez gaitezen horietan trabatu.
- Helburua ez da inor konbentzitzea, batzuen eta besteen ikuspegiak ezagutu eta ikastea baizik.
- Gutako bakoitzak botere handia du. Ez dezagun indar hori albokoa zapaldu, isildu, gutxietsi, umiliatu edo lotsarazteko erabili.
- Konfiantzazko giro bat sortzen lagundu dezagun.
- Hau espacio seguro bat da eta, beraz, ez da ezelako erasorik onartuko.
- Laguntza behar duen inor ikusten baduzu, ez duda egin, galdeitu eta hala nahi badu lagundu iezaiozu.

Aspalditik dakigu elkarren arteko zaintza dela feministon altxorrik preziatuena. Jarri dezagun beste behin praktikan.

Gozatu jardunaldiez eta tratu onez.



1. MAHAI INGURUA:

(Ez)amatasunak ikuspegia feministatik. Desioak, kontrolak eta denborak

Amatasunak ikuspegia feministatik aztertu nahi ditugu, politikaren lurzorura eraman gure biografia, desio eta gogo sakonak. Gure abiapuntua argia da: ugalketa eredu hegemonikoak, eta oinarrizko duen familia nuklearrak ondoeza sortzen digu. Horretarako gure artean dauden oinarrizko komunak aztertu nahi ditugu, eta egiturak, antolaketa sozialean porrot egiten ari den hori identifikatu nahi dugu.

Horretarako mahai-inguru honetan arreta jarri nahi dugu ama egiteko prozesuan jokoan sartzen diren hiru oinarrizko elementutan. Bata desioa, nola eraikitzen den, nola egiten diogun aurre, nola egikaritzen dugun, zein paper duen horretan merkatuak... hori guztia aztertu nahi

dugu batetik. Besteak kontrola, aztertzeko zein kontrol mekanismo dauden (ama egiteko edo ez egiteko), zein loturak dituzten, nola kontrolatzen diren desioak, nola gorputzak, nola denborak, nola egunerokoa, zein den azken batean ezarri nahi zaigun amatasun eredu hegemonikoa XXI. mendean. Azkena denborak. Denbora biologikoak, gure denborak, besteenak, gorputz ezberdinen presentziak eta absentziak, gizonen absentziak eta presentziak, denbora produktiboak, zaintzeko denborak... Guztiz lotutako hiru kontzeptu dira, eta horretarako hiru hizlari ekarri ditugu, hiru kontzeptu horietan barrena murgilduko direnak, bakoitzaz bere ikuspegia zehatzetik.

ERREPRODUKZIO SOZIALAREN KRISIA

Aspaldian Mugimendu Feministak salatu dugu erreprodukzio sozialaren krisi sakon baten aurrean gaudela; hots, bizitzak aurrera egiteko eta era duinean errepruduzitzeo guztizko oztopoak dituela, eta horiek guztiak merkatu kapitalisten mesedetan jarritakoak direla. Horri buruz hitz egiten dugunean, krisi horren askotariko dimentsioei buruz hitz egin ohi dugu: zaintza krisiaz, osasun krisiaz, ugalketa krisiaz, elikadura krisiaz, krisi energetikoaz... Azken batean egunerokotasuna eta bizitza garatzen den esfera horiek guztiak ondoezez beteta daudela adierazi nahi dugu, geroz eta sakonagoak diren zapalkuntzek gurutzatzen dituztela, eta geroz eta zailagoa dela ongi bizieta.

Gure kide Amaia Perez de Orozcok hiru elementu aipatzen ditu erreprodukzio sozialaren krisia ezau-garritzeko: Bizitza prekarizazio prozesuek zeharkatzen dutela (bizitza duinak bizitzeko zaitasuna, eskuragarritasun falta instituzionalizatua), bazterketa eta prekarietatearen arteko aldea txikitzen ari dela (edozein txikikerik egoera prekario batetik bazterketa egoerara eramaten zaituela, hauskortasuna), eta hipersegmentazioaren aurrean gaudela (gizarte arrakalak geroz eta nabariagoak direla).

Gure bizimoduek ukatzen dute izaki menpekoak garela, eta zaurgarriak garela; hots, gure gorputzek momenturo behar dutela zaintza. Gainera, testuinguru erabat bortitzean bizi gara, eta horrek zaintzaren premiara garamatza berriz ere, zaintza kolektibora hain zuzen ere. Esan dugu behin eta berriz: bakarrik ezin dut, lagunekin bai (edo ni ez nau poliziak zaintzen, nire lagunek zaintzen naute. Edo benetako politika lagunekin egiten da). Hau da, egoera bortitzek kolpatzen dute gure bizitza, istripuz edo egituraz, eta ezin diegu horiei bakardadean aurrea hartu, elkarrekin egin behar dugu. Horregatik ere harrotasunez esaten dugu elkar zainduz arriskutsuak garela, sistema osoa inpugnatzen dugulako erabateko autonomiaren falazia gainditzen badugu, sistema produktiboa zalantzan jartzen dugulako eta erdigunetik kentzeko aldarria egiten dugulako, eredu maskulino hegemoniko arrakastatsua faltsua dela argitzen dugulako.

ZAINTZA KRISIA

Zaintza krisi baten aurrean gaude, Botere korporatiboa birosatzen ari da, eta hedatzen ari da zaintzen, erreprodukzio biologikoaren eta ondasun naturalen merkantilizazioa. Bereizkeriak handitzen ari dira globalki eta lurralte bakoitzean, eta bizitzaren sostengua eremu ikusezinen esku gelditzen ari da (emakumeak, emakume arrazializatuak, lurralte txirotuak...).

Gorputz batzuk boterea metatzen ari diren bitartean, geroz eta sektore zabalagoek zaurgarritasuna eta explotazioa indarrez ari dira pairatzen. Alegia, gorputz batzuk zaintza duinak dituzten bitartean, beste batzuk eskaintzeko edota jasotzeko explotazioan oinarritutako estrategiak asmatu behar dituzte. Hauskor bizitzera ohitu behar dute, sistemak ez baititu bizitzeko beharrak asetzten.

Eta zaintza krisiaz ari gara biztanleria-sektore askok beren burua zaintzeko, besteak zaintzeko edo zainduak izateko izugarrizko zaitasunak agerian gelditzen ari direlako. Hainbat sektorek ezin dituzte haien oinarrizko beharrak asetu, zaintzak era bidegabean banatzen direlako, eta ez dago birbanaketarako mekanismorik. Zaitasun horiek agertzen dira zainketen gaineko erantzukizunak banatzeko eredu tradizionala (guztiz bidegabea zena) ezegonkortu delako, kolapsatu delako, eta sistema sozioekonomiko osoa berregituratu delako. Ez da aldatu sexuen araberako lan banaketa, ezta lan

merkatuko segmentazioa ere. Baino aldatu da alor produktiboaren garrantzia denon bitztan, soldaterekiko menpekotasuna, zaintza lanaren balioa. Aldatu dira zaintzeko erak (externalizatu dira batzuk, nahiz eta ikusi beharko genuken nola, ezta?), amatasunen ulerkerak (gaur egun ama direnek ez dute beraien burua bakarrik amak gisa ulertzten, lankide dira, lagun, militante...), elkarbizitza espazioak (kasu askotan murriztu dira, pobrezia energetikoak mehatxatzen dituelarik), genero identitateak (trantsizio eremu gisa indartzen ari dira), estatuen papera (oligarkien menpeko eta herritarrengandik geroz eta urrunago agertzen dira), merkatuarena.... Eta aldatu dira (akaso ez nahiko genukeen norabidean), eta eremu asko eta asko bilakatu dira merkantzia.

Aurreko eredu tradizionaletik beste bateranzko bidea hartu dugu, baina bizitzaren sostengurako arduren banaketa berri hori ez dago osatuta Tentsio, gatazka eta ustelkeriaz betetako eremuan bilakatu dira zaintza lanak hiperfeminizatuak jarraitzen dutelako (guk zaintzen dugu eta espero da guk zaintzea era batera edo bestera), familiarizatuak jarraitzen dutelako, etnoestratifikatuak, merkatuaren logikan kokatu direlako eta prekarizazio prozesuek gurutzatu dituztelako (ez dira lan arruntak, ez dute balio ekonomikorik). Eremu produktiboak dena betetzen du, eta errepraktiboa bazterrean konpontzen saiatzen ari den zerbait da. Ez gizonek, ez estatuek, ez gizartea ez du ardura hartu zaintza lanekiko. Gu aldatu gara, baina besteek alatzeko erresistentzian jarraitzen dute. Erabateko gatazka dugu kapital metaketaren eta bizitzaren bizigarritasunaren artean.

UGALKETA KRISIA

Ugalketaren eremuak zaintza krisiarekin erabateko lotura du. Ez gaude hitz egiten jaiotze tasaren jaitsieraz, baizik eta bizitzaren errepraktzioa, baita gizakien ugalketa ere bazterrean gelditu dela, ez dela lehenesten, eta antolakuntza sozial eta politikoa ez dagoela bizitza horien mesedetan. Ez sortzen diren bizitzen mesedetan, ez garatzen ari diren horien mesedetan (gutxi batzuenak soilik), ez bukatzen ari diren bizitzen mesedetan. Sara Lafuentek dio: "Ugalketa krisia zaintza krisiaren parte da, bizitza berrien sorkuntza gizartearren bazterrean gelditu delako, bere tokian kapitalaren metaketa jarriz". Hau da, zaintza zein ugalketa lanak indibidualizatzen dira, merkantilizatzen, eta etxeetan zein familia nuklearretan pribatizatzen". Sexuaren araberako lan banaketa, botere harremanak, binarismo heteronormatiboa birstortzen den nukleo horietan. Mina eta bortizkeria sortzen duten guneak.

Amatasunaren sakralizazioaren eta eremu produktiboaren exijentziaren arteko sokatiran murgilduta gaude; hots, meritu sozialaren, balio sozialaren eta merkatuaren logikaren eragozpenaren arteko talkan. Ama izan/egin behar dugu, lori goren zoragarria da emakume oso izateko, baina merkatuak zigortuko gaitu. Ugaldu behar dugu, igual dio nola, berdin dio gure gorputzek zein beste emakumeenak pairatzen dutena. Erabateko dedikazio jardun behar dugu, baina horrek ez digu inongo prestigiorik emango. Derrigorrezko bilakatuko zaigu ama izatea, baina inor ez da prest egongo bide horretan laguntzeko, ez estatua, ez gizartea, ez gizonak. Denen zoriona jasoko dugu eginez gero, baina bazterrean geldituko gara gure kezkekin. Eta ez da izango berdin emakume ororentzat, haudun gelditu nahi duten gorputz guztientzat; izan ere, beste zapalkuntza aldagai batzuekin gurutzatzuz gero (arraza, migrazio prozesuak, gaitasunak, genero identitateak, familia egiturak, babes soziala...) bortizkeria guztiz areagotuko da. Hau da, ugalketa eta bizitzaren sostengua/bizigarritasuna ez da justizian, berdintasunean eta askatasunean oinarritzen.

Bidegabekerien aurrean gaude, eta horiei aurre egiteko, kolektiboki egin behar dugu ariketa. Ezin dugu eremu pribatura mugatu, era individualizatuan hautatu. Nola ugaltzen garen, eta nola zaintzen dugun politizatza, eta kolektibizatza, bizitzak erdigunean jartzeko ahalegina dela argi dugu (Sara Lafuente).

Ugalketaren eremuan ere arrakalak handitzen ari dira eredu hegemonikoaren zein praktika erreales artean. Eta arrakala horrek erakusten digu batetik mundu hau geroz eta bideraezinagoa dela, geroz eta zailagoa dela bizitza, eta bestetik errebeldiarako zein eraldaketarako potentziala dugula.

Zein familia, zein bizitza, zein ahaidetasun nahi ditugu? Zeintzuk laguntzen digute desegonkortasun honetatik ateratzen? Zein dira gure eskubide sexual eta errepraktiboak? Zeintzuk balio digute orainaldi esanguratsuak sortzen? Zer gertatuko litzateke kriantza familia nuklearretik ateraz gero? Zer gertatuko litzateke heteroarauak ez balu familia egituratuko? Nola orekatu gure desioak (norbanakoak zein sozialak), aukerak eta denborak? Zein neurri behar ditugu eredu kolektiboetara trantsitzatzeko? Eta, nola konpondu gaur egun ditugun berehalako arazoak?

Ardura hortatik ari gara Mugimendu Feministan.



Diana Oliver

¿CUÁLES SON LAS PRECARIEDADES QUE ATRAVIESAN LAS MATERNIDADES EN ESTE CONTEXTO NEOLIBERAL?

Creo que la precariedad es una cuestión estructural, lo atraviesa todo: nuestros trabajos, nuestras viviendas, nuestros cuerpos, nuestras crianzas.

La precariedad está en las condiciones laborales, en unos salarios que no alcanzan, en el precio imposible de la vivienda, en las condiciones materiales, en la incertidumbre económica constante, pero también en la ausencia de políticas que protejan realmente las necesidades de las madres y de las criaturas, en cómo nos relacionamos, en lo poco que nos ayudamos, en la devaluación constante de lo materno. Y en cómo hacemos todo: con culpa, con agotamiento, con la sensación de hacer todo a medias y mal, cargando con la hiperexigencia propia y del entorno.

Hoy parece que somos más libres que nunca para decidir cuándo, con quién, cómo, somos madres pero la realidad es que la precarización es una forma de dominio: el capitalismo decide sobre nuestro deseo materno. Y lo condiciona. La edad media para el primer hijo se sitúa en los 33 años. Las condiciones materiales van a marcar completamente cómo será tu maternidad. Carecer de una situación económica estable, poder asumir el pago de una vivienda, tener un trabajo precario y no contar con una red de apoyo se traduce en angustia y agotamiento. Las condiciones materiales marcan que puedas cuidar con dignidad.

Por eso muchas mujeres cuestionan el sistema cuando se convierten en madres, porque toman conciencia de que **el sistema actual es incompatible con la crianza y con la maternidad**. Se dan cuenta de que sus **ritmos** ahora son otros muy distintos, más lentos, y no encajan en una sociedad acelerada, en la que pri-



ma la inmediatez. Una sociedad dividida entre lo productivo, y valioso, y lo no productivo, y socialmente minusvalorado.

Creo que deberíamos poner el foco en la precariedad como problema estructural que lo atraviesa todo, poniendo atención en medidas que por fin atiendan las necesidades reales de las madres, y eso pasa por preguntar a las madres qué necesitan.

Hay una reflexión¹ de la asociación PETRA Maternidades feministas que me gusta mucho porque creo que refleja muy bien esto:

En nuestro país el problema de la mayoría de mujeres no es romper el famoso techo de cristal, sino salir del suelo pegajoso. Este sistema laboral y económico precario, sin visión de futuro, que ignora la realidad de las mujeres, la infancia y la vida nos empobrece cada día más.

Hay mujeres que, dada la precariedad del sistema laboral, enlazan un contrato basura con otro. Otras, trabajan sin contrato, en algunas ocasiones porque así pueden compaginar ingresos puntuales con la crianza, quedando privadas de estabilidad y de cualquier derecho o prestación. Se necesitan leyes específicas para un mercado laboral que se ponga al servicio de la vida. Trabajos que sean compatibles con la crianza a través de permisos amplios, prestaciones universales por menor a cargo, protección del embarazo, reducciones de jornada remuneradas, etc.

¿POR QUÉ ES TAN DIFÍCIL CRIAR?

Es muy difícil criar porque vivimos en una sociedad profundamente adultocéntrica que desconoce las necesidades de las criaturas y de sus madres y que, además, ignora el valor social de la crianza y de la maternidad. Que pone por delante lo productivo sobre lo reproductivo.

Algunos puntos clave:

- **COSTE ECONÓMICO.**

La precariedad estructural de la que hablaba y la ausencia de políticas públicas de ayuda a la crianza repercute en el bienestar de las familias y en el cumplimiento de los derechos de los niños y niñas.

Según datos de Plataforma Infancia, en el dossier **Análisis sobre el apoyo a la crianza en España**², publicado en septiembre de 2022, España es uno de los países de la Unión Europea que menos invierte en protección social a la infancia y la familia. Las pocas medidas que existen no son suficientes para una crianza digna para quienes tienen situaciones más vulnerables. Además, no existe una prestación económica que ayude a las familias para asumir y afrontar los costes de la crianza.

Según Save the Children el coste de la crianza en 2022 es de 672€ al mes por hijo o hija.

(1) <https://twitter.com/PlataformaPetric/status/1319717107165253633>

(2) <https://www.plataformadeinfancia.org/wp-content/uploads/2022/09/Dossier-la-crianza-nos-quita-el-sueno-Crianza-Digna-.pdf>

Para muchas mujeres tener hijos supone su empobrecimiento. Si tu situación es complicada económicamente, empeorará significativamente con la maternidad.

Además, está la cuestión de quiénes se pueden permitir el privilegio del cuidado: reducciones de jornada, excedencias, pérdida de empleo, ¿quiénes se lo pueden permitir?

La maternidad, la crianza, convocan una suerte de economía de la pérdida, que de algún modo podría amenazar las lógicas propias del neoliberalismo. Esto no solo se debe a que (aunque a veces nos pese) interrumpen drásticamente nuestra productividad, sino también a que están centradas en el don. En los tiempos que corren, y en nuestros contextos, donde parece que cada vez tenemos menos tiempo, dar por dar, sin esperar ni exigir recompensa o rentabilidad, además de ser cada vez más raro, te precariza y te empobrece, te sitúa del lado de la pérdida, en una lógica contraria a la imperante.

Maite Garbayo³.

- **EXTERNALIZACIÓN DEL CUIDADO COMO ÚNICA POSIBILIDAD.**

La única medida que se ofrece a las familias es la externalización del cuidado. Pero no todos los cuidados son externalizables. Y no todas las mujeres quieren derivar esos cuidados. Aquí muchas entran en una enorme contradicción: quiero cuidar pero no me lo puedo permitir. O quiero cuidar pero me empujan a que no deje mi trabajo. También hay contradicciones y culpa cuando tienes conciencia feminista: ¿soy poco feminista si antepongo cuidar a producir?

Dicen que triunfa el patriarcado si te conviertes en madre y te quedas cuidando. Para mí, **el patriarcado gana cuando no puedes decidir libremente lo que haces**. Pero también cuando te convencen que cuidar no es un trabajo o no es tan importante como tener un trabajo remunerado.

- **DEVALUACIÓN CONSTANTE DE LO MATERNO.**

Aparentemente la maternidad se ensalza nominalmente pero después la realidad es que socialmente no se valora a las madres.

Ni siquiera nosotras mismas le damos valor. “Solo soy madre”, “Solo he tenido hijos”, son frases que muchas veces decimos y que visibilizan esa desvalorización.

De nuevo lo productivo por delante de lo reproductivo: tiene más valor el trabajo remunerado, fuera de casa, aunque sea precario, que el cuidado invisible de la crianza y los cuidados.

De la maternidad sabemos lo que el patriarcado nos cuenta en torno a la idea de lo que es una madre. Vivimos en una sociedad que da la espalda a las madres, que nos quita el poder, que no reconoce ni da valor al trabajo de las madres. Por lo tanto, es una sociedad que sabe

(3) <https://futuridadesmaternales.net/2019/09/18/la-maternidad-la-crianza-convocan-una-suerte-de-economía-de-la-perdida-que-de-algun-modo-podría-amenazar-las-lógicas-propias-del-neoliberalismo-esto-no-solo-se-debe-a-que-aunque-a-veces/>

muy poco de la maternidad, que, por un lado, te la vende idealizada, pero luego ignora las necesidades de las madres.

Ibone Olza³.

- **INTERDEPENDENCIA VS INDEPENDENCIA.**

La crianza de las criaturas pone en evidencia nuestra interdependencia y esto desafía las dinámicas modernas que premian y ensalzan la autonomía y la independencia, valores en los que se asienta el patriarcapitalismo.

- **DETERIORO DE LA SALUD FÍSICA Y MENTAL DE LAS MADRES.**

El contexto hostil para con las madres y las criaturas, la soledad de la maternidad actual, la falta de red, no disponer de ayudas y la hiperexigencia externa y propia deterioran la salud física y mental de las madres. No es la maternidad en sí misma la que me agota sino las condiciones que se le imponen.

Me parece importante destacar aquí que hoy se nos exige muchísimo porque no solamente tenemos que trabajar, sino que hemos profesionalizado la crianza: se nos exige un estándar de calidad de la crianza que nunca vas a alcanzar.

Tenemos que cuidar hijos como si no tuviésemos trabajos que nos consumen todo el día y toda nuestra energía. Y no hablo de esos trabajos de los que se habla siempre, bien remunerados y considerados socialmente, sino de trabajos subalternos o no tan bien considerados, valorados y remunerados como debería. Pero se nos ha vendido que podemos llegar a todo cuando en realidad no podemos más. También está la cuestión de que a nosotras se nos exige más que a los padres, que las expectativas sociales con ellos son más bajas.

Sí queréis que seamos madres, entonces miradnos, cuidadnos, dadnos las condiciones para ser madres, dadnos tiempo para respirar.

Orna Donath, autora del ensayo Madres arrepentidas.

- **REPERCUSIONES EN LA SALUD FÍSICA Y MENTAL DE LAS CRIATURAS.**

Estrés, ansiedad, poco tiempo con sus familias, derechos vulnerados (ausencia de parentalidad positiva en muchos contextos). Las criaturas también se ven afectadas por la precariedad estructural y por la falta de soporte a la maternidad.

Cuidando a las madres cuidamos a los bebés y, por tanto, a toda la sociedad.

- **INVISIBILIDAD DE LOS PROCESOS SEXUALES Y REPRODUCTIVOS.**

Tampoco se contempla que las madres pasan por unos procesos por los que no pasan los padres —

el embarazo, parto, postparto, puerperio y lactancia—. Son procesos que muchas veces se llevan en soledad y, antes de que concluyan, tienes que volver a lo productivo, a la rueda, como si no hubiera pasado nada en tu vida, cuando ha habido un cambio radical: ahora una persona depende de ti.

La exterogestación, la lactancia materna, el postparto, la salud mental perinatal, no son procesos sostenidos ni comprendidos.

¿CUÁL ES LA SITUACIÓN ACTUAL EN EL ESTADO ESPAÑOL PARA LAS PERSONAS QUE DECIDEN HACERSE MADRES? ¿CUÁLES CREEES QUE SON LAS URGENCIAS O REIVINDICACIONES PRINCIPALES PARA EL DESARROLLO DE LAS MATERNIDADES?

La realidad es que llegar a ser madre no es fácil. Socialmente se alienta la idea de que siempre estamos a tiempo, que disfrutemos, que hagamos “ahora” todo lo que deseemos, como si la maternidad fuera un hándicap. También están las condiciones materiales, económicas y laborales: alcanzar una estabilidad es una utopía para muchas. Quien puede permitírselo, tiene hijos. Quien no puede, los tiene pero su situación se precariza ¿Es madre quien quiere o quien puede?

Y cuando llegas a la maternidad: No existe una única forma de ser madre. **¿Qué ocurre cuando quieres cuidar? ¿Estar? ¿Ser una madre y no un sujeto productivo? ¿Qué opciones hay?** Todo es susceptible de ser mercantilizado: nuestros deseos, nuestros cuerpos, nuestras maternidades, nuestros miedos, nuestras carencias.

Las madres cuidamos gratis.

Estamos centrando todos los discursos relacionados con la maternidad y los cuidados entorno a la conciliación y lo productivo, y esto está dejando atrás a muchas madres, historias y situaciones que están fuera de los discursos laborales o de los techos de cristal. Mujeres que no tienen trabajos económicamente dignos y valorados socialmente, mujeres sin contrato, sin trabajo remunerado, racializadas, mujeres con necesidades especiales, con enfermedades crónicas.

Para poder vivir unas maternidades gozosas (Olza, 2022) debemos reclamar el derecho a maternar, al cuidado. Revalorizar el valor de la maternidad y de la crianza. Cambiar la mirada hacia la infancia: no ver a los niños y niñas como las adultas que serán sino como sujetos con plenos derechos hoy. Y dotar a la maternidad de recursos: ayudas no asociadas al empleo, prestaciones universales, ampliación y TRANSFERIBILIDAD de los permisos por nacimiento y cuidado. Los permisos intransferibles son profundamente paternalistas, adultocéntricos y centrados en lo laboral. ¿Las familias no pueden decidir cómo se organizan? ¿Por qué eso perjudica a las mujeres y una baja por menstruaciones dolorosas no? Aquí se entiende a qué le damos más valor. Qué entendemos socialmente como “útil”, “valioso”.

Mi dolor individual, aparentemente íntimo como madre, es el dolor individual y aparentemente íntimo de las madres que me rodean y de las que estuvieron antes que yo, cualquiera sea su clase y el color de su piel.

Adrienne Rich, Nacemos de mujer.

EN ALGUNA OCASIÓN HEMOS ESCUCHADO QUE NO TE REPRESENTABAN LOS DISCURSOS FEMINISTAS SOBRE MATERNIDADES. ¿CUÁLES SON ESOS DISCURSOS? Y ¿CUÁLES SON TUS APORTACIONES A LOS MISMOS?

Muchas mujeres al llegar a la maternidad se encuentran, nos encontramos, sin referentes feministas que tengan en cuenta sus, nuestras, necesidades y reclamos.

Las reglas del juego están pensadas para gente sin familia. Puedes trabajar y ser madre, si aceptas el código de honor de ser la última en salir de la oficina .

Arlie Hochschild⁴.

El feminismo ha resuelto muchas cuestiones pero se ha dejado la maternidad, la crianza, nuestros procesos fuera.

En algunos feminismos se encuentra:

● **Promoción de una maternidad neoliberal**, supeditada a lo productivo. Por mi parte creo que la maternidad hoy está atravesada de forma imperante por un feminismo neoliberal que ha condicionado nuestros deseos (mercantilizándolos) y que también ha condicionado nuestras experiencias maternas (equilibrio feliz, techos de cristal, yo no renuncio, conciliación). Estos discursos se sustentan en las reglas del juego del patriarcado basado en jerarquías, poder, economía. En esta búsqueda de igualación al modelo masculino, ¿dónde queda la maternidad? ¿Los cuidados?

Se habla de conciliación pero, ¿qué es? ¿es posible? ¿es real que exista tal conciliación o que se pueda alcanzar? El feminismo neoliberal tiene grandes altavoces en personas muy mediáticas, en serie, películas, y ha logrado que sintamos de todas el discurso de las situaciones más privilegiadas. Dicen no ser una superwoman pero lo que nos venden (como un producto realmente) es que podemos “tenerlo todo” si nos adaptamos mejor al sistema. Se ha convertido el trabajo en un hobby, en nuestra mayor aspiración. Titular real de SModa: *Fuera las culpas: así ayuda a los niños que sus madres no abandonen su carrera profesional*.

Nos estamos preocupando de los techos de cristal, la supuesta conciliación y la educación de los padres para que se comporten como seres funcionales pero nosotras seguimos cuidando desde la precariedad, seguimos enfermando, seguimos perdiendo nuestras capacidades de decisión. Muchas mujeres no entran en estos discursos de renuncias porque no pueden decidir si trabajan o cuidan. Muchas mujeres no tienen carreras profesionales ni su trabajo les empodera.

Se dice muy a menudo que las mujeres necesitamos “independencia económica” y para ello debemos convertirnos en hombres. Como si tener un trabajo nos garantizara hoy esa independencia cuando en los hogares deben convivir varias personas para poder llegar a fin de mes haciendo muchos esfuerzos. La realidad es que ellos tienen cada vez más privilegios mientras seguimos cuidando desde la precariedad y con más consecuencias para nuestra salud física y mental.

¿Las mujeres en situaciones más precarias pueden acceder a según qué avances? ¿Se está prote-

(4) La entrevista se publicó el 20 de mayo de 2021 en El País <https://elpais.com/mamas-papas/2021-05-20/hochschild-puedes-trabajar-y-ser-madre-si-aceptas-el-codigo-de-honor-de-ser-la-ultima-en-salir-de-la-oficina.html>

giendo a las mujeres (y sus criaturas) en situaciones más vulnerables?

- ✿ **Igualdad en la diferencia.** Cuando las mujeres salen en masa a trabajar lo hacen para un mundo masculino en el que los cuidados no existen. Hoy sigue sin resolverse esto, solo respuestas mercantilizadas y precarizadas: escuelas 0 a 3 (mujeres cuidadoras), otras mujeres en situación de precariedad, reducciones de jornada de las que menos aportan a la economía de la familia... Seguimos alimentando la espiral de la precariedad con medidas que siguen perpetuándolas.
- ✿ **Rechazo a nuestra biología.** En ocasiones se rechazan los procesos reproductivos de las mujeres. Incluso se invisibilizan en los reclamos políticos: permisos iguales e intransferibles; lactancia artificial; escuelas infantiles. Esto tiene como consecuencia la separación temprana de la diada madre-bebé y minúsculan nuestras necesidades. Cuando se mencionan nuestras diferencias siempre se considera que son esencialistas. ¿Nos molesta nuestra biología? **Nosotras pasamos por un embarazo, un parto, un postparto y una lactancia pero esto no se tiene en cuenta en la realidad.** Se habla de un permiso prepardo a las 39 semanas que es claramente insuficiente, un parche. ¿Y la lactancia materna? La gran olvidada. Son interesantes las peticiones de PETRA Maternidades feministas: un permiso prepardo mínimo desde la semana 36 de embarazo y un permiso puerperal como mínimo de 8 semanas; protección de la lactancia materna como derecho de las madres y de sus criaturas.
- ✿ **Antimaternismo.** Hay discursos que devalúan determinadas maternidades y prácticas maternales desde una posición privilegiada y, en muchos aspectos, caduca. La lactancia materna, siempre en el punto de mira, por ejemplo.
- ✿ **Maternidad intensiva.** Se asume la maternidad como una nueva forma de esclavitud a través de los modelos de crianza basados en las necesidades de las criaturas (J. Cañero, 2022). De nuevo: no es la maternidad, sino las condiciones en las que se materna: los recursos, la red, las condiciones económicas y materiales, las trabas para el cuidado...

Maternidad y paternidad no son conceptos iguales, como pudiera creerse, ni tan sólo equivalentes.

Victoria Sau.

El feminismo debe reconocer el valor de la maternidad para la sociedad y reclamar el derecho a una maternidad digna para todas poniendo el foco en la precariedad, el sometimiento al capitalismo y la invisibilidad de la madre no patriarcal. Necesitamos poner en el centro nuestras necesidades y las de las criaturas.

El feminismo no debería seguir invisibilizando la maternidad sino que debería reappropriarse y liberarla.


Cuando hablamos de maternidades es imprescindible desarrollar un feminismo anticapitalista porque, dentro de este sistema y de la lógica productivista, los cuidados siempre se encontrarán en el plano "no productivo", carentes de valor de mercado.

Julia Cañero.

El feminismo, con el que estoy de acuerdo, se ha planteado reivindicar nuestra capacidad creadora. Sin embargo es absolutamente necesario reivindicar también la recreadora o re-

productora. Es necesario buscar fórmulas para que nuestra condición de dadoras de vida llegue a ser un estímulo, un aliciente. Es necesario que el sufrimiento y la carga sean superados por el gozo y el placer de la maternidad. Llevamos demasiados siglos pariendo con dolor. Ha llegado la hora de trasgredir ese dolor y transformarlo, de pasar de la casi inconsciente gestación a la experiencia de una maternidad consciente, asumida desde la inteligencia. Tenemos o no tengamos hijos, la posibilidad recreadora, la posibilidad maternal está escrita en nuestro código genético. Estériles o prolíficas, todas las mujeres nacemos con ovarios y con útero. Deberíamos aprender a reivindicar y a valorar mucho más nuestra condición. A mirar el mundo con ojos maternos.

Tiempo de espera, de Carme Riera.



Marina Sagastizabal



HETERO-ARAUARI BEGIRA: DENBORAREN ANTOLAKETA, FAMILIA EREDUA, ETA ETXEKO ETA ZAINTA LANEN BANAKETA.

Gaur kontatuko dudanaren zati handi bat ikerketa proiektu baten markoa garatu da, eta hortik abiatutako hausnarketa batzuk plazaratzea da nire asmoa. Proiektuak krisi ekonomikoak eta langabeziak etxeko eta zaintza lanen banaketan izan zuen eragina aztertu nahi zuen, seme-alabak dituzten bikote heterosexualen testuinguruan. Ideia hauen parte handi bat bereziki Matxalen Legarretarekin batera garartu dira, baita Amaia Agirre-Miguelezekin ere.

Lehenengo, ikuspegi orokorrago batetik denbora antolaketari buruz arituko naiz eta ondoren, nolabait zehatzago, denboraren banaketari buruz, eta ikerketatik eratorritako gogoeta egingo dut.

Egun, bizitzaren eta kapitalaren arteko gatazka gordinean bizi gara: produktiboa kontsideratzen ez diren denborek ez dute baliorik, ikusezinak dira, bizitza sostengatzen duten denborak ezkutuan daude. Kontziliazioaz hitz egiten da, baina zaila da, ezinezkoa ez esateagatik, talkan dauden bi logika kontziliatu ahal izatea. Kontziliazio politikek bultzatu dutena izan da batez ere emakumeen presentzia handitzea lan merkatuan, ekonomiaren aktibazioa izan da haien xedea, hortaz, logika merkantilistari erantzuten diote batik bat.

Aintzat hartu behar dugu ere, gaur egun, gizartea antolatzeko daukagun denbora-eredua industrializazioarekin sortu zela. XIX. mendean zehar. Kapitalismoaren garapenarekin denboraren kontzeptu zehatz bat orokortu zen: erlojuaren denbora (Adam, 1999), honek lanaren eta ekonomiaren ideia merkantilista bati erantzuten dio. Erlojuaren denbora, denbora-abstraktua da, “edukitik eta testuingurutik bereizita dagoena, gertakarietatik kanpo” (Adam, 1999:9), diru-trukerako baliagarria den denbora da, “denbora-berdin-dirua”

bilakatu da. Ekoizpenaren erritmoak pertsonen eguneroko erritmoen gainetik inposatu dira: atse-den-denboraren, lo-denboraren eta gizarte-bizitzaren gainetik (pentsa dezagun produkzio industrialaren gaeuko lanaldietan: ezinbesteko da kotxeak gaez produzitzea?). Produkzioaren erritmoak eta erritmo biologikoak, naturarekin bat datozenak, talkan daude.

Era berean, gure bizitza zikloak logika honen arabera antolatuta daude. Hau da, gure bizitza-zikloak merkatuaren arabera antolatuta daude: haurtzaroa/gaztaroa formaziorako, helduaroa lan merkatuan aritzeko eta zahartzaroa erretirorako. Gainera, herritar ideala gizon-zuri heterosexuala da, lan merkatuan prestutasun osoz aritu daitekeena, bere denborak produzitzera edo kontsumitzera bideratuko dituena; herritar ideala beraz honakoa da: “gizon nazionala, kotizatzailea eta zergaduna da, lan formala duena, familiaburua” (Alonso, 2007:100). *Male breadwinner* figurak laburbiltzen du herritar ideala.

Gizarteak daukagun errekonozimendua lan merkatutik eratortzen da, eta herritar onak izateko *breadwinner* horren pautak jarraitu beharko ditugu. *Breadwinner* izan behar gara guztiok, edo *breadwinner* horren antzik gehienetan hartu. Politika sozialek bide honetara bultzatzen gaituzte: herritartasun eskubideak lortzeko lan merkatu formalean parte hartzea ezinbesteko da. Baino baita ezkontzak lagunduko gaitu bide honetan ere. Kontratu laborala eta kontratu sexuala daude herritartasun eredu honen atzean.

Sistema honek gure bizitzak antolatzen ditu sistemarentzat funtzionala izango den familia eredu sortzeko (familia eredu liberala eta burgesa): kontratu sexual modernoa da hau, Carole Patemanek (1995) seinalatu zuen bezala, zeinetan gizon *breadwinner* bat (etxeko burua) eta emakume *caregiver* bat (etxeko andrea) izango dugun. Hala ere, egun *breadwinner* bat eta erdi daukagu, emakumeak presentzia bikoitzean daudelako (bai etxean, bai lan merkatuan). Familia eredu hau ongizate-estatuaren zutabea da (Esping-Andersen, 1993). Hainbat autorek seinalatu dute heterosexualitatearen ideologia (Carabine, 1992) edo erregimena ongizate-estatuaren ereduan eta gizarte-politiketan oso presente dagoela, eta honek herritarrek errepruduzitzea espero diren zenbait itxaropen eta bizi-proiektu markatzen ditu, gure bizi-zikloak logika honen arabera antolatzeari. Sistemarentzat desiragarria den bizi-proiektu honek hainbat denbora eta bizi-ziklo erdigunean jartzen du: bikotea, ezkontza, ugalketa eta familia-eredu nuklear eta heterosexuala sortzea. Hau da, bizitza eredu arautu eta normala daukagu, non bikotean bizitza, ezkontza, errepruduzitza,.. sistemarentzat funtzionala izango den.

Behin denboraren antolaketa plano orokor batetik aztertuta, denboraren banaketa zehatzari buruz arituko naiz. Zer nolako inpaktua dauka denbora-antolaketa sistemiko honek gure bizitzetan? Zehazki, etxe barruko denbora-banaketari buruz arituko naiz. Zer aldaketa ikusten da maila globalean etxeko-denboretan azken hamarkadetan? (denbora aurrekontuen inkestetan mugak aintzat hartuta, noski: mendebaldeko herriak dira eta lan guztiak ez dira neurten). Bi tendentzia azpimarratzen dira: batetik, denbora banaketan dagoen genero-arrakala txikitzen ari dela azpimarratzen da (*gender convergence teoria*) eta bestetik, aldaketa horiek ez direla hain handiak izan azpimarratzen da (*stalled revolution teoria*).

Egia da bi generoen arteko denbora-arrakala murriztu egin dela azken urteetan Eustateko datuen arabera, 1993tik 2018ra, etxeko lanen (zaintza aintzat hartu gabe) genero-arrakala erdira jaitsi zen (etxeko lanen denboraren feminizazio-indizea 4tik 2ra jaitsi da). Baino teoria guztiekin bat datozenak gau-

za bat azpimarratzean: arrakalaren txikitze horren atzean dagoena da, bereziki, emakumeek urteetan zehar eskainitako denbora murriztu dutela eta ez horrenbeste orain gizonek denbora gehiago dedikatzen dutela. Nola azaldu aldaketa hau? Gauza batzuk dagoeneko ez direlako egiten (adibidez, lisatzea) eta aukera dagoen etxeetan beste norbait kontratatzen delako lan horiek burutzeko. Bikote heterosexualen artean gatazka ekiditeko estrategia oso erabilia da (Agirre-Miguel, 2014). Honek esan nahi du emakumeen esku daudela oraindik lan hauek, emakumeen artean banatzen dira, eta desberdintasunak beste ardatz batzuetara mugitzen ari dira: klase soziala edo jatorria, kasu.

Sozialki, inork egin nahi ez dituen lanak dira (daukaten balio eskasa dela eta), horregatik bazterretan kokatutakoek burutzen dituzte bereziki (langile klasiko emakumeek, emakume etorkinek,...). Zaintzaren kate globalen katebegi guztiak emakumez osatuta daude. Errekonomizmendu eskasa eta gainera, sarri penalizazioa dakar zaintza lanetan aritzeak, adibidez, lan merkatuan. Bikote heterosexualen testuinguruan, amatasuna ekonomikoki zigortua dago, autore batzuek %40eko penalizazio ekonomikoa kalkulatzen dute (Budig eta England, 2001). Beste familia eredu batzuetan, errealtitatea bestelakoa da: lesbianen artean adibidez, lan merkatuko parte hartzea gutxiago murritzen da guraso izatean, eta murrizten denean, bikotekideen artean sortu daitekeen soldato-arrakala denborarekin desagertzen da (Eckho Andersen eta Nix, 2019). Hala ere, kasu guztietan, emakumeen kasuan, umeak izatean etxeko eta zaintza lanari eskainitako denbora handitzen da, presentzia bikoitzean bilakatzen da (lan merkatua eta zaintza lanak) eta honek parte hartze soziopolitikoan eragina dauka batik bat, denborak egokitzeko ekuaziotik desagertzen den lehen eremua izaten baita.

Eta gizonen kasuan zer gertatzen da? Ikerketek seinalatu izan dute bi soldato-iturri dituzten bikoteak direla berdinzaileenak. Eta gizonen artean, diskurtsiboki berdinzaileenak omen dira ikasketa maila altuak dituztenak eta klase ertainekoak. Adibidez, badago ikerketa ildotik "stay at home fathers" delakoak aztertzen dituena (etxeen geratzen diren aitak), ikerketa hauek bereziki diru-sarrera eta ikasketa maila altuak dituzten aitak aztertu dituzte. Egindako azterketak, beraz, oraindik ere nahi-ko begirada partzialetik egin dira. Gizarte mailan ere, halako diskurtsoak daude: zuriak ez diren eta langile klasikoak diren maskulinitateak "atzerakoienak" direla uste da (Gutmann eta Viveros 2007; Bridges eta Pascoe, 2014; Liong, 2017). Aintzat hartu behar dugu maskulinitate hauek, nobabait, arautik gehiago desbideratzen direla, ez dutelako *breadwinner* eduarekin bat egiten: sarri, lan merkatua ez da erdigunea (langabezia, lan prekarioa edota ekonomia informalean aritzen direlako). Lanarekiko dagoen harremana instrumentalda da eta ez du zertan identitatearen erdigunean egon.

Aztertu genituen bikote heterosexualen artean, guztiekin 12 urtetik beherako seme-alabak zituzten, eta bikotekideetako batek edo biek langabezia pairatu zuten. Egindako ikerketan hipotesi bat genuen: familia hauek zaitasunak izango zituzten zaintza lanak etxetik kanpo kontratatzeko (gainera, zerbitzuak murriztu ziren krisi garaian), beraz, honek ahalbidetu zezakeen gizonen inplikazio han-diagoa, eta aukera bat izan zitekeen lanen banaketa parekide bat bultatzeko.

Hainbat ikerketek seinalatu dute gizonak langabeziaren daudenean, kuantitatiboki denbora gehiago eskaintzen diotela etxeko eremuari. Halere, ezingo genuke konparatu emakumeek dedikatzen dioten denborarekin, askoz gehiago baita. Emakumeak "etxeko andre" bilakatzen dira langabeziaren daudenean eta gizonak ez.

Hala ere, langabeziaren egoteak *breadwinner* figura horretatik eta genero rol tradicionaletik aldentzea dakar. Horrek bi erantzun ekar dezake: are gehiago rolak indartzea arau-desbideratze horri aurre egi-

teko; edota, bestelako praktika batzuk asumitzea: “lehen mailako zaintzailea” (*primary caregiver fathers*) bilakatuz edota “etxeen lagunten duena” (*helper fathers*) bilakatuz.

Lehenengoen kasuan, are gehiago indartu dituzte genero rol tradizionalak eta euren idealak eta praktika *breadwinner* izan da, nahiz eta langabeziaren egon. Adibidez, langabeziaren egon diren denbora tarte horretan, lan merkatua erdigunea izan da (esan digute lana bilatu dutela %20Oean). Kasu batzuetan, umeei ezkutatu zaie gizonaren langabezia, umeeik pentsatzeko *breadwinner* zirela oraindik (hau ez da gertatu emakumea langabezia egon denean). Diskurtsoetan, batzuk argiki defendatu dituzte genero rol tradizionalak eta beste batzuk diskurtso berdinazalea defendatu dute, nahiz eta aurrera eramatzen duten praktika bestelakoa izan.

Bigarren kasuan, batzuk “etxeko laguntzaileak” bilakatu dira, hau da, zaintza lanen eremu jakin batzuetan handitu dute implikazioa (bereziki, hezkuntzarekin eta jolasarekin zerikusia dutenak), eta gutxiago, etxeko lanetan. “Ni arraroa izango naiz, baina lisatzea gustatzen zait”, esan digute adibidez. Bestalde, “lehen mailako zaintzaileak” bilakatu direnen artean, genero rol tradizionalekin apurtzen dituzten praktikak ikusi ditugu. Langabeziaren denbora luzez egon dira eta dezente handitu dute euren implikazioa, etxeko lanen eta zaintzaren lehen arduradunak bilakatu arte. Hala ere, implikazio hau bizitzeko modua ezberdina izan da egoeraren arabera. Adibidez, batzuek modu negatiboan bizi izan dute. Hau da, lanbide espektatiba altuak egon direnean (goi mailako ikasketak izatea), nahiz eta praktika nolabait apurtzailea izan, idealak *breadwinner* eredu mantentzea izan da: “lan bat edukiko banu, norbait kontratuko nuke nire alaba zaintzeko”, esan digute. Beste kasuren batean, kontrakoa ikusi dugu, asko implikatu dira eta modu positiboan bizi izan dute: hemen azalpen ezberdinak egon daitzke. Lehenik, komentatutako lan espektatiba eza, identitatea ez dago lan merkatuaren bueltan eraikia eta hori lagungarria izan daiteke (lana instrumentalda da, ez da identitatearen parte). Bigarrenik, bikotearekin lan banaketa egon da, hau da, beraiek ez dute lan karga osoa asumitu (gestioa, adibidez, beti emakumeen gain erori da). Hirugarrenik, sozialki dagoen ikuspegia: gero eta gehiago bultzatzen da gizonak umeen hazkuntzan eta zaintzan implikatzea.

Ondorioak:

- 1) Bizitzarako tarteak utziko duen denbora antolaketa behar dugu. Zaintzari balioa eman, soziala, politikoa, ekonomikoa eta honen denborak errespetatu;
- 2) Gure ikuspegia sarri oso partziala da: kontuz klase ertaineko gizon zuriak hainbeste txalotzearekin, kapital kulturala dute diskurtso feministak erabiltzeko, baina praktikak aldaketak beharrezkoak dira;
- 2) Nahiz eta gizonak langabeziaren egon emakumeek ez dute implikazioa galtzen, batez ere, etxeko gestioari dagokionean eta batzuetan gehiago egiten dute ere “genero arauen desbideraketa” hori konpontzeko;
- 3) Noraino daukagun sartuta feminitatea eta maskulinitatea; ezinbestekoa da genero rolak iraultzea, bestelako familia ereduak sortzea, bestelako erreferenteak, heteroaraua apurtzen dutenak.

ERABILITAKO ERREFERENTZIAK

- Adam, B. (1999). Cuando el tiempo es dinero. Racionalidades de tiempo conflictivas y desafíos a la teoría y la práctica del trabajo. [When Time is Money: Contested Rationalities of Time in Theory and Practice of Work] *Sociología Del Trabajo*, 37, 5-39.
- Agirre-Miguel, A. (2014). Negoziazio prozesuak bikote eredu berdinzaleetan. Doktorego-tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Alonso, L. E. (2007). La crisis de la ciudadanía laboral. *Anthropos*.
- Budig, M. J., & England, P. (2001). The Wage Penalty for Motherhood. *American Sociological Review*, 66(2), 204-225. <http://www.jstor.org/stable/2657415>
- Bridges, T., & Pascoe, C. J. (2014). Hybrid Masculinities: New Directions in the Sociology of Men and Masculinities. *Sociology Compass*, 8(3), 246-258. <https://doi.org/10.1111/soc4.12134>
- Carabine, J. (1992). 'Constructing women': women's sexuality and social policy. *Critical Social Policy*, 12(34), 23-37. <https://doi.org/10.1177/026101839201203402>
- Eckho Andresen, M., & Nix, E. (2019). What Causes the Child Penalty? Evidence from SameSex Couples and Policy Reforms.
- Esping-Andersen, G. (1993). Los tres mundos del Estado de bienestar [The Three Worlds of Welfare Capitalism]. Alfons el Magnànim.
- Gutmann, M., & Viveros, M. (2007). Masculinidades en América Latina. In M. Á Aguilar, & A. Reid (Eds.), *Tratado de psicología social. Perspectivas socioculturales* (pp. 120-139). *Anthropos*.
- Liong, M. (2017). Sacrifice for the family: representation and practice of stay-at-home fathers in the intersection of masculinity and class in Hong Kong. *Journal of Gender Studies*, 26(4), 402-417. <https://doi.org/10.1080/09589236.2015.1111200>
- Pateman, C. (1995). El contrato sexual. *Anthropos*.



Anna Molas

TEMPORALIDADES PRECARIAS ENTRELAZADAS: LAS LÓGICAS DE LA OVODONACIÓN Y EL AUGE DE LA INDUSTRIA DE LA FERTILIDAD EN ESPAÑA

Me llamo Anna Molas y soy doctora en Antropología Social (Monash University, 2021) y actualmente trabajo como investigadora en la Universitat Autònoma de Barcelona. En los últimos 5 años he estado haciendo investigación alrededor de la reproducción asistida y mercados reproductivos con un interés particular en la donación de óvulos en España. En este artículo voy a esbozar algunas ideas centrales para pensar sobre el tema de estas jornadas, las (no)maternidades.

La expansión y normalización de las tecnologías reproductivas en Europa tiene una relación totalmente inversa a las tasas de natalidad en el continente. Mientras que en 1980 hubo 6,47 millones de bebés nacidos vivos en Europa, esta cifra cayó en 4,97 en 2018. Totalmente al contrario de esta tendencia, en 1997 se realizaron alrededor de 203.000 ciclos de FIV en Europa, cosa que se cuadruplicó en 19 años, llegando a un número de cerca de un millón en 2016.

Algunos factores globales que se dieron en Europa en esa época se relacionan con estas cifras de disminución de la fecundidad como la incorporación completa de la mujer en el mercado laboral regular o la disponibilidad de métodos anticonceptivos en la mayoría de los países europeos desde los años 60. Sin embargo, también se ha documentado una correlación directa entre las bajas tasas de fertilidad y el retraso de la maternidad con las dificultades de conciliar el trabajo con la maternidad debido a condiciones laborales que ofrecen poca flexibilidad, las pocas ayudas públicas existentes para la crianza y el hecho de que las tareas del hogar aún hoy siguen recayendo mayoritariamente en las mujeres.



Las consecuencias de estos cambios se pueden ver, por ejemplo, en el auge de las personas que tienen su primer hijo a partir de los 40 años. El retraso de la maternidad debido a estos factores que interseccionan como consecuencia ha llevado a que muchas mujeres y parejas en Europa tengan dificultades para concebir cuando quieren (o pueden) hacerlo y que además no tengan acceso a los tratamientos que desean en sus países de origen. Y con esto nos referimos muy particularmente a la donación de óvulos, que se convierte en muchos casos en la última oportunidad de las mujeres para quedarse embarazadas después de los 40. Esta ha generado lo que se ha llamado comúnmente, “turismo reproductivo”. Y aquí España tiene un rol especialmente importante.

España tiene la industria de la fertilidad más destacada de Europa y recibe pacientes de todo el mundo. En 2019 recibió 18.475 pacientes extranjeros, de las cuales el 54,3% querían acceder de FIV con óvulos donados. La razón por la que España se ha convertido en el destino preferido de los viajeros de fertilidad europeos tiene que ver con la diversidad de tratamientos disponibles, las condiciones flexibles de uso y la gran cantidad de donantes de óvulos. Efectivamente, España tiene muchas donantes de óvulos, en concreto en 2019 hubo 14.521 extracciones. ¿Y por qué hay más donantes de óvulos en España que en otros países? El principal motivo es la compensación económica que reciben, que ronda los 1.000 euros (cifra muy parecida al actual salario mínimo para un trabajo a tiempo completo) y el anonimato de la donación. A pesar de que haya este intercambio económico, la donación de óvulos está enmarcada según la ley dentro del marco del altruismo.

Otro aspecto del contexto relevante a tener en cuenta es que la industria de la reproducción en España se ha establecido en el sector privado desde sus inicios. A pesar de que se realizan también tratamientos por la seguridad social hay grandes diferencias entre los dos sectores. En primer lugar, la seguridad social tiene límite de edad para el tratamiento, que son 40 años (edad en la que justamente muchas personas empiezan a buscar estos tratamientos), por otro, hay largas listas de espera en muchas comunidades autónomas y, por último, no cubre por ejemplo los tratamientos con óvulos donados. Como dato ilustrativo, a día de hoy hay 245 clínicas que hacen tratamientos de fecundación in vitro, de las cuales 200 son clínicas privadas.

Es importante considerar el hecho de que la industria reproductiva española no es una economía de base local, sino que está cada vez más integrada en una industria transnacional de atención médica privada muy lucrativa. Como ejemplo de estas dinámicas me gustaría presentar brevemente el caso de IVI. IVI se fundó en Valencia en 1990 y en 30 años el grupo se expandió hasta tener más de 30 clínicas por toda España. Esto atrajo el interés financiero internacional y en 2017, IVI se fusionó con el grupo privado de salud reproductiva de la RMA de Estados Unidos, convirtiéndose en el mayor grupo de servicios de fertilidad del mundo. Tras la fusión, el grupo entró en la bolsa de Estados Unidos y España. El principal producto de la empresa es de hecho el programa de donación de óvulos en España. Este caso no es único. De hecho, en los últimos años, muchas clínicas de fertilidad grandes y medianas en España han sido absorbidas por grandes conglomerados privados de salud o fondos de inversión.

Tal y como se ha apuntado por parte de investigadoras como Sara Lafuente-Funes y Amaia Orozco, la donación de óvulos puede entenderse como un proceso más de cuidados que se externaliza de forma precaria. Si ya existe mucha literatura sobre la manera en que los cuidados se externalizan debido a las necesidades del mercado productivo (como el cuidado de los niños después de y antes

de la escuela, el trabajo doméstico en los hogares) la donación de óvulos se trata de un proceso externalizado una vez más por parte de personas con un cierto estatus socioeconómico que (en su mayoría) no concibieron en sus años fértiles. Tal y como explican las sociólogas Melina Cooper y Catherina Waldby, la desintegración del sistema fordista, que se caracterizaba por el trabajo en las fábricas, hizo que el trabajo reproductivo y de cuidados no remunerado se integrara al mercado laboral, pero con un fuerte sesgo de género y devaluación, ya que se consideraba trabajo que emanaba de las inclinaciones naturales de las mujeres a llevar a cabo estos cuidados. En este sentido el marco altruista de la donación de óvulos se puede entender como una herencia de esa naturalización de los trabajos de cuidados. La mayoría de las participantes de esta investigación encajan dentro de este marco ya que su participación en la bioeconomía reproductiva global se sitúa en un marco de inestabilidad y precariedad.

En este artículo me voy a centrar en las razones por las cuales muchas mujeres deciden convertirse en donantes de óvulos y mostraré como estas decisiones están relacionadas con su contexto laboral. Veremos como la donación de óvulos es para algunas una manera de ganar tiempo para encontrar un trabajo, un trabajo en sí mismo o una manera de asegurar un trabajo en el futuro en un contexto socioeconómico inestable.

- **GANAR TIEMPO PARA ENCONTRAR UN TRABAJO**

De junio a octubre estuve buscando trabajo día y noche. Me inscribí en Infojobs, Adecco, Randstad, fui al SOC, a una institución de mi pueblo donde te ayudan a buscar trabajo. Fui tienda por tienda con mi currículum, moví cielo y tierra. Pero claro, llegó a un punto de decir: "Vale, mi idea era empezar a estudiar, ahora no puedo, no puedo ahorrar. En febrero vuelve a empezar la campaña para apuntarse a la universidad, habré perdido un año entero", ¿sabes? [...] El dinero de la donación no era para pagar la universidad, sino para tener algo allí por si acaso. [...] Es decir, quieras o no, el transporte, imprimir los CV...

(Merche, 26 años, donante de óvulos).

Vemos aquí como para Merche donar óvulos es una forma de poder seguir invirtiendo tiempo en buscar un trabajo y cómo, en este sentido, los tratamientos de ovodonación están vendiendo tiempo no solo a las receptoras que no pueden tener hijos con sus propios óvulos por razones de edad, sino también a los donantes que intentan alcanzar sus objetivos de esta manera.

- **LA DONACIÓN DE ÓVULOS COMO UN TRABAJO ELEGIDO**

Algunas participantes, por otro lado, conceptualizaron la donación de óvulos y el dinero de la compensación económica explícitamente como un trabajo. A través de cálculos y comparaciones en términos de dinero y esfuerzo, donar óvulos se vuelve preferible a estar en el mercado laboral regular.

Martina se mudó a Barcelona cuando tenía 18 años. Estaba comenzando la carrera universitaria, dejaba la casa paterna y se mudaba a una gran ciudad por primera vez en su vida. Sus padres le

pagaban las tasas universitarias y el alquiler del piso compartido en el que vivía, pero para todo lo demás, que era el transporte, la comida, su vida social en Barcelona, tenía que arreglárselas con el dinero que ganaba trabajando de camarera en Port Aventura.

Este ha sido mi salario durante estos 4 años en Barcelona. [...] Recuerdo que una chica de mi clase trabajaba en Nostrum y me dijo "esto está muy bien, porque así voy a poder pagar lo que quiera", y yo pensé "sí claro, puedo trabajar antes de Semana Santa para tres meses..." y luego pensé "Ay, que va... Puedo donar óvulos y en un mes tengo más de dos sueldos", porque sumando mi sueldo de Port Aventura de julio y agosto gano lo mismo que donando óvulos una vez. Entonces, es como... lamento decirlo así, pero es una manera fácil de... [...]. Entonces, si lo comparas, trabajo dos meses en verano o los fines de semana, o estoy dos semanas metiéndole esas hormonas a mi cuerpo, claro, según mi forma de ser, mi personalidad, mi experiencia, yo elijo donar óvulos y tener esta compensación económica.

(Martina, 22 años, donante de óvulos cuatro veces).

• ASEGUAR UN FUTURO CON LA DONACIÓN DE ÓVULOS

Otra cosa que las mujeres mencionaron a menudo cuando hablaban de cómo destinarían el dinero ganado a través de la donación de óvulos fueron las prácticas no remuneradas en empresas: la mayoría de los títulos en España exigen realizar un número determinado de horas de prácticas para adquirir la titulación. Es decir, paradójicamente, se sometieron a la donación para pagar un trabajo no remunerado, con la esperanza de que esto impulsara sus oportunidades futuras. Poder hacer estas prácticas era visto como una oportunidad para su futuro. Helena por ejemplo dice que ir a Argentina era para ella un “sueño” para el cual necesitaba conseguir el dinero.

La primera vez fue más personal, por lo que te dije, y la segunda fue... bueno, me dieron una compensación económica de 1.000 euros y yo... yo estaba en el tercer año de la Uni y mi sueño era ir a Argentina durante el cuarto año para hacer las prácticas allí, entonces fue como, "dono una vez más y... y me voy". [...] Estuvo muy bien, y sí, me pude ir con un colchón [económico], esa es la verdad. Porque económicamente, no es que yo estuviera muy bien precisamente, pero... si quería lograr este sueño, tenía que sacarlo de algún lado.

(Helena, 27 años, donante de óvulos dos veces).

La narrativa del cumplir “el sueño de ser madre” que tanto se repite en las clínicas de fertilidad se formula aquí de otra manera. El sueño en este caso es de Helena, una donante, que aspira a poder ir a hacer unas prácticas a Argentina con el dinero de la donación.

Estos ejemplos ponen en evidencia como la decisión de donar óvulos está íntimamente ligada a un mercado laboral precario al que estas personas jóvenes están intentando entrar. Pero la precariedad no es la única consecuencia que tiene para ellas el hecho de ser jóvenes, si no que la edad tiene otras implicaciones en el proceso de donar óvulos. Una de ellas va a ser su capacidad de procesar la información (o la falta de información) que se les va a dar en relación a los riesgos y consecuencias que puede tener un ciclo de estimulación.

De hecho, muchas participantes, sobre todo aquellas que habían donado hacía años, me contaban que, con la perspectiva de algunos años se dieron cuenta de que de hecho se necesitaba un cierto nivel cultural y madurez para entender y procesar la información que se les daba, y decían que poder hacer esto era complicado sobre todo cuando la cuestión de la juventud y la necesidad económica se juntaban. Alba, que hizo su donación cuando tenía 18 años, decía esto:

Así que cuando tienes esa edad y te dicen que por no hacer nada te van a dar 1000 euros y que además estás protegida y tal... y si estás pensando que vas a hacer feliz a alguien es genial, ¿no? Así que lo haces. Acaban captándote y, por supuesto, habrá mucha gente que lo hizo porque "mi amiga lo hizo, así que yo también lo haré". Trata de imaginarte cuántas niñas lo hicieron así. [...] Sí, me dieron la información y me hicieron firmar que lo había entendido. Obviamente, yo no había entendido nada. [...] lo que se supone que tenía entender, no podía entenderlo en ese momento.

(Alba, 25 años, donante de óvulos).



5 juny de 2017 · 0 · 0

Rompe con los falsos mitos de la donación.
Mostrar la traducción

La donación NO implica riesgos para tu salud

Este tema nos lleva a reflexionar críticamente sobre la cuestión del consentimiento para donar. En primer lugar, las clínicas ofrecen muy poca información en relación con los riesgos. Como vemos en estas imágenes de los perfiles de distintas clínicas en las redes sociales, en muchas de ellas la donación se anuncia como un proceso que no tiene ningún riesgo para la donante.

En las clínicas, por otro lado, sólo se les informa sobre los riesgos del presente o futuro inmediato después de la extracción. No se menciona, por ejemplo, de que hay muy pocos estudios sobre los

27 abril · 0 · 0

El único efecto secundario que tiene, es que hacés muy FELIZ a otras chicas ✓
HazteDonante
Mostrar la traducción

¿VERDAD O MITO?

“La donación de óvulos tiene efectos secundarios”

Mito

Donar óvulos no tiene efectos secundarios, tampoco adelanta la menopausia, ni da problemas de esterilidad y no te genera ningún problema si quieres ser madre.

posibles riesgos a largo plazo de ciclos de estimulación fuertes. Algunos estudios han apuntado posibles relaciones entre la estimulación y problemas de salud graves como la endometriosis y ciertos tipos de cáncer, sin embargo, faltan estudios longitudinales que ofrezcan más certidumbre.

Al no mencionar la falta de estudios longitudinales sobre los riesgos a largo plazo la donación se presenta como una acción que no tendrá ninguna consecuencia futura para la donante.

En segundo lugar, las clínicas no dan información a las donantes sobre los resultados de la extracción de óvulos. Por ejemplo, a la mayoría de las participantes de mi investigación no se les dijo la cantidad de óvulos que se habían extraído, la cantidad de parejas que podrían recibirlas, el país de origen de las receptoras, ni si sus los óvulos se congelarían para ser enviados al extranjero, opciones que la mayoría de las donantes ni siquiera sabían que existían. Vamos un ejemplo de ellos en esta cita de Emily:

Anna: ¿Te dijeron si tus óvulos iban a ser para uno o más destinatarios?

Emily: No. Pero no sé si más mujeres puedan usarlos. Creo que hay una ley que dice que no se puede... o sea... ¿o se puede? (...) En teoría... bueno no dijeron nada en relación a esto. Y en los documentos que leí tampoco lo decía. Hablaron de LA receptora; Eso lo sé.

(Emily, 23 años, dos veces donante de óvulos).

Las entrevistas con el personal de la clínica en relación con las prácticas informativas se alinearon muy bien con lo que encontré al hablar con donantes de óvulos. De hecho, destacaron que no se comunicaba información detallada sobre los resultados de la donación. Sin embargo, podían informar a los donantes si la donación había dado lugar a un embarazo. Argumento que decir si se ha producido un embarazo o no pero no el número de óvulos extraídos o cómo van a usarse, traza los límites de lo que tiene que ser la motivación legítima de las donantes y refuerza otra vez la narrativa del altruismo. De esta manera las donantes quedan apartadas de las lógicas comerciales de la clínica para mantenerse en el rol de proveedoras presuntamente sin interés económico.

Para acabar me gustaría concluir que la industria de la fertilidad en España y también a nivel global se basa no solo en los problemas para organizar los tiempos del trabajo y la crianza de las personas receptoras, sino también en la inestabilidad socioeconómica de muchas personas que en algunos casos son muy jóvenes. Estos problemas entrelazados entre estas dos generaciones han dado lugar a una industria que capitaliza en las dificultades de engendrar hijos en el contexto actual y en las necesidades económicas de muchas mujeres jóvenes en un mercado laboral complicado.

Las realidades de las donantes de óvulos, que en esta presentación he esbozado, están totalmente invisibilizadas de los debates en relación con las maneras en las que damos solución a los problemas que nos atraviesan cuando queremos tener hijos. Estas donaciones hechas en muchos casos en contextos precarios están alimentando una industria privatizada, muy lucrativa y en la que España tiene un rol clave.



2. MAHAI-INGURUA:

Amatasunaren arrastoak: ibilbide demografiko, historiko eta feministak

“Amatasunaren arrastoak: ibilbide demografiko, historiko eta feministak” izena ipini diogun mahai-inguru honetan amatasun desiraren inguruau hitz egingo dugu eta horretarako gurekin dauzkagu Marta Luxan, Lore Lujanbio, Iosune Fernández-Centeno eta Metxi Bogino.

Zehazki mahai-inguru honetan amatasuna eraikuntza sozial eta kultural moduan landuko dugu, nabarmenduz amatasuna eta amatasun desira ez dela zerbait naturala, purua, estatikoa, sistematik kanpo dagoen zerbait, edo kapitalismotik kanpo dagoen zerbait. Aldiz, berarekin batera edo, hau da, mekanismo eta prozesu historiko politiko batzuen pean eraikitzen dugun ama-

tasunen desira bat dala. Egungo amatasun praktika eredu, ulerkera eta desioak ere jendarte eta sistema batean sortuak direla ulertzen dugulako.

Lehenengo irakurketa historiko eta demografiko bat egingo dugu nola eraiki ditugun amatasun praktika eta desio eredu hauek ulertzeko eta, ikusiko dugu ere bai zein izan diren mugimendu feministak Euskal Herrian urteetan zehar amatasunen gainean eduki dituen diskurso eta praktikak. Amaitzeko saiatuko gara gaurkotze ariketa bat egiten eta proposatu diegu hizlariei ikuspegi feministatik amatasunen gaira gerturatzen kontuan hartu behar genituen oinarri batzuk mahaigaineratzen.

Marta Luxán Serrano



(Ez)amatasunaren gaineko eztabaidari heltzeko gai demografikoak aztertzea garrantzitsua dela ondorioztatu dute Emagineko lagunek eta horietaz aritzeko gonbidatu ninduten jardunaldietara. Egiari zor, ez ditut beraiek luzatutako galderak bere horretan erantzun, baina bai abiapuntu moduan erabili. Era berean, testu honek hausnarketarako gonbitea baino ez du izan nahi, ez ezazue jo ideien edota jarraibideen dekalagotzat, arren! Baino heldu diezaigun gaiari.

Euskal Herrian bizi izan ditugu prozesu demografikoak zeintzuk izan diren izan da proposatutako lehenengo galdera eta hona hemen erantzun laburra. Bilakaera demografikoan eragina duten faktoreak jaiotzak, heriotzak eta migrazioak dira. XX. mendeko hazkunderik handiena migrazioen ondorio izan zen eta XXI. mendean ezagutu ditugun hazkunde uneak ere migrazioek sortutakoak izan dira. Orobak, bilakaera demografikoa ulertzeko testuinguruari erreparatzea ezinbestekoa dugula azpimarratu nahi nuke, bilakaera demografikoan koiunturak eragin handia duelako.

Edonola, gertatutakoa bezain garrantzitsua da gerta-tutakoari nola begiratzen diogun, jazo denari buruz zer irakurketa egiten dugun, alegia. Esku artean dugun gaia (ez)amatasuna izanda, ugalkortasunaren bilakae-rarekin lotutako irakurketetan eragin handia duten hiru gai ekarri nahi nituzke orriotara: populazio kontuek iruditegian duten presentzia handia, *herri ikuskerra demografikoa* dela iruditegi horretan gailentzen dena eta *salbuespen egoeraren normalizazioa gauzatzen dela*. Ale ditzagun banan-banan.

Lehenengo idea da populazioak (zentzu demografikoan ulertutako populazioak) garrantzia handia duela iruditegian, populazioak edota populazioaren ezaugarrri zehatz batzuk zentraltasuna dutela gure imajinarioan. Horren adibide argia dugu pandemiaren garaian zabaldutako mezuetan zein ezarritako arauetan adi-

nak jokatu duen papera. Ugalkortasunaren eremura jotzen badugu, gurean zabaltzen diren mezu gehienak ezkorak dira eta, horretaz gain, emakumeak bilakatzen gaituzte egoeraren arduradun. Testu hau atontzen ari naizen bitartean Eustat-ek jaiotza tasari buruzko datuak kaleratu ditu. Beste batzuetan gertatu moduan, tasa behera egin duela esatearekin batera, umeak falta direla iradokitzen da, zerbait gaizki doala. Era berean, ama izan direnen gaineko datuak plazaratzen dira, adina besteak beste, baina ez dakigu ezer gizon gurasoeng inguruan eta, kontakizun demografikoetan, oso gutxitan aipatzen dira lagun-sareak edo komunitateak. Beste askotan esan dudanez¹, nire iritziz ez dago jaiotza edo ugalkortasun tasa egokirik, ditugunak ditugu eta gure gizartean gauzatzen diren erlazio konplexuen ondorio dira. Halaber, pertsonek ugalkortasunari buruz hartutako erabakiak testuinguru sozialaren baitan kokatu behar ditugu.

Horretaz gain, iraganari buruz dugun irudia ez dator bat gertatutakoarekin, hau da, ugalkortasunari lotutako fikzioak gailendu dira gure imajinarioan. Irudipen hori herri ikuskeria demografikoa deitu izan diot nik² eta ume kopuru handiekin eta ama oso gazteekin lotuta legoke. Erantsitako taula ikus dezakezuenez, XX. mendean zehar EAEn bizi izandako emakumeek ez ditugu/zuten ume kopuru handirik izan (belaunaldien batez bestekoa ez da 3 umera heltzen) eta ama izateko adina 27 urtetik gorakoa da aztertutako belunaaldi guztietai.

Era berean, ugalkortasun ezak, ez-amatasunak ez ditugu irakurtzen, ez dute lekurik iruditegian. Beraz, garrantzitsua deritzot erreferentziak sortzeari eta, zentzu horretan, Dornaku Lanz Solbes³ (2016) egindako lana aipatu nahi nuke. Ikerketa horretan, Lanzek XX. mendean zehar EAEn amak izan ez diren emakumeak aztertu zituen eta, besteak beste, beraien bizikidetza moduak amak izan zirenekoena baino anitzagoak zirela ondorioztatu ere.

Amaitzeko, eta aurrekoarekin oso lotuta, Baby-boom (1965-1974) delakoan gertatutakoa eredutzat jotzen dugu, salbuespen egoera izan zena, alderaketak egiteko erreferentzia bilakatuz. Azal dezagun afera hau. Garai horretan aurreko urteetan baino ume gehiago jaio ziren eta jaiotza eta ugalkortasun tasek gora egin zuten, baina ez banakako emakumeek ume gehiago erditu zituztelako, baizik eta askotariko belanauldiak guraso izaten ari zirelako aldi berean. Halaber, urte haietan XX. mendeko amarrik gazteenak egin ziren.

Taula 1. Emakumeen ugalkortasuna belaunaldika, jaiotza urteen arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa, 2021.

Emakumeen jaiotza urteak	Azken ume kopurua	Batez besteko adina
1980-1976	1,3	32,6
1975-1971	1,4	32,5
1970-1966	1,4	31,8
1965-1961	1,4	30,3
1960-1956	1,5	28,5
1955-1951	1,8	27,8
1950-1946	2,1	27,9
1945-1941	2,4	28,4
1940-1936	2,6	29,3
1935-1931	2,6	30,3
1930-1926	2,7	30,8
1925-1921	2,6	31,2

Iturria: Eustat. Inuesta demografikoa.

(1) Luxán Serrano, Marta (2022). *Irakurketa demografiko bat: kopuru etatik bizitza duinetara*, Jakinek eta UEUk antolatutako EH2040: demografia, lurraldia, zaintza, hizkuntza ikastaroan emandako hitzaldia, hemen eskuragarri: <https://www.jakin.eus/bideoak/2022-euskal-herria-2040/euskal-herria-2040-marta-luxan-iii/348>

(2) Luxán Serrano, Marta (2005). *La fecundidad en la Comunidad Autónoma de Euskadi. Un estudio generacional*, Begoña Arregi eta Andrés Davila-n, Reproduciendo la vida, manteniendo la familia. Bilbo: UPV/EHU, 123-166.

(3) Solbes Lanz, Dornaku (2016). *Amatasuna (ez) 1946-81 belaunaldietan*. Gradu Amaierako Lan: UPV/EHU.

Bigarren galdera multzoa populazio politiken nolakotasunari buruzkoa izan zen eta horien lotura amatasun desiren eraikuntzarekin. Politikez harago ere, egitura soziala eta amatasun desiraren arteko harremanari erreparatzeko eskatu zidaten.

Politikei dagokienez, gurean estatuak martxan jarri izan dituen politika guztiak natalistak izan dira. Eta ez bakarrik politikak, askotariko diskurtso politikoek kutsu natalista izan dute eta dute. Dena dela, politika natalistak ez dira bereziki arrakastatsuak izan eta, nire ustez, egitura eta egituratze sozialak amatasunaren desiraren eraikuntzan askoz eragin handiagoa dute. Hona hemen desiraren eraikuntza aztertzeraoan kontuan izan beharreko faktore batzuk.

Alde batetik, ama izatea bada sozialki oso ongi baloratuta dagoen zerbait eta, aldi berean, gizartea egituratzen duena. Azken baieztapen honekin esan nahi dudana da pertsona bat ama egiten de nean, inguruokoak ere amonak, izebak, lehengusinak.. bilakatzen garela. Eta jardunaldietan aurkeztutako esperientzietai ikusi genuenez, prozesu horiek sozialki garrantzitsuak dira eta espektatibak zein presio iturri ere. Zeinek ez du noizbait entzun, *noiz egingo nauzu amona? Noizko ume bat?* Era berean, amatasuna bada heldua bilakatzeko bide bat, beste status bat esleitzen zaie amei, ardura-rekin batera heldutasuna dator.

Bestalde, eta Lore Lujanbio Etxeberriak esandakoari jarraituz, ama izatearen erabakia indibidualizazioarekin lotzen dugu egun. Anna Cabré i Pla⁴ demografo katalandarrari jarraituz, orain dela hamarkada batzuk jendeak *haurdun nago edo ume bat izango dut/dugu zioen* eta egun ohikoa da *ama/guraso izango naiz/gara entzutea*. Beraz, autoerrealizazioa eta norbanako esperientziek gure gizartearen duten garrantziarekin, zein esperientzia horiek kontsumorako gai bilakatzeko dagoen joerarekin ere lotu dezakegu egungo amatasunaren desira. Era berean, desira hori eskubidea bilakatzeko joera dago eta, zenbaitetan, merkatuaren logikaren arabera asetzeko ere.

Horretaz gain, ohikoan eskuzabaltasunarekin lotzen den afera, seme-alabak izatea, ez al da bakartasunaren kontrako txerto moduko bat?

Bukatzeko, Mugimendu Feministak amatasunen aferara gerturatzeko kontuan hartu beharko lituzkeen oinarrak zeintzuk diren galdetu ziguten. Nire iritziz, darabilgun gaiari dagokionez, mugimendu feministaren helburu nagusiak ahaidesasuna, orokorrean, eta amatasuna, zehazki, pentsatzeko eta irudikatzeko moduak zabaltzea eta familia(k) deszentratzea lirateke. Eta hona hemen bide horretan aurrera egiteko gako batzuk:

- Diskurtso naturalizatzaleak eta biologizatzaleak saihestea.
- Amatasuna eta, orokorrean, gurasotasuna aukera moduan eta ez eskubide moduan ulertzeari.
- Bizipen pertsonalak (ez amatasunarenak ere) kontuan izango dituzten, baina horietan geratuko ez diren irakurketa politikoak garatzea. Eta bizipenak gainditzeari garrantzitsua deritzot batez ere bi arrazoiengatik. Alde batetik jardunaldietan ikusi genuenez, bizipen horiek askotarikoak eta kontrajariak direlako. Bestetik, eraldatzaileak izango diren diskurtso eta praktika politikoak eraikitzeko tes-

(4) Cabré i Pla, Anna (2018). "Utz ezazue bakean demografia!", Iñaki Irabalbertia (ed.), Familia politikak ongizate estatuan. Donostia: Ezkerraberri Fundazioa/EHUgune, 16-22. Hemen eskuragarri: <https://fdocuments.ec/document/ongizate-familia-20pdf-ekzerraberri-fundazioa-familia-politikak-ongizate-estatuan.html?page=1>

tuinguruari erreferentzia egitea ezinbestekoa delako eta, askotan, bizipenetan murgiltzen garenean sistemaren eta egituraren eragina desagertzen, edo lausotzen, delako.

- Atzerritartasun legearen deuseztatzearen alde lan egitea.
- Iraganari zein orainari begiratzeko betaurreko egokiak erabiltzea, horrek lagunduko baitigu etorkizuneko iruditegiak eta bizitzeko aukerak zabaltzen.



Lore Lujanbio

AMATASUNA PATRIARKATU NEOLIBERALETAN

• AMATASUN DESIRATU ETA ERABAKIA

Mendebaldeko gizarte gairaikeetan ez dira emakumeak ama izatera behartzen, aurreko mendeetan egin bezala. Emakume heterosexual gehienek sexualitatea eta haurdunaldia bereizteko antisorgailuak erabiltzen dituzte. Azken urteetan ama lesbianak, ama bakarrak, guraso homosexualak edo trans gutxi batzuenak ugariagoak eta onartuagoak egin dira. Abortua despenalizatu eta arautu egin da, dibortzioa legalizatu eta haurrik ez izateko hautua onartuagoa eta ohikoagoa da. Hortaz, 60-70. hamarkadetako mugimendu feministen aldarrietakoa izan zirenak gauzatu egin direla esan dezakegu: sexualitate eta ugalketaren artean bereiztea edota amatasuna erabakia, desiratua izatea. Beraz, amatasun desiratu eta erabakia erdiguneko egin da. Baino, amatasuna desiratua edota erabakia izateak feministak bilakatzen du? Eta zapalkuntza zein indarkeriak ezabatzea eragin du?

Ez da halakorik gertatu. Amatasuna erakunde eta dispositibo heteropatriarkal, kapitalista eta zuria da, beraz, zapalkuntza horiek etengabean birsortzen eta gurutzatzen dira. Gaur egun, amatasunarekin loturiko praktika, emozio edo esanahiak gogor naturalizatzen dira, baina gehienak Europako Modernitatean sortu eta hedatu ziren. Mediku, irakasle, gizarte langile, filosofo eta zientzialarien diskurtsoekin edota ordaindutako lanetik kanporatzeko legediekin eraiki zen hegemoniko egin den amatasun eredu. Hau da, eremu pribatuari, maitasun errromantikoari eta familia nuklearrari lotua. Esaterako, XVIII. mendetik aurrera ama bakoitzak erditu duen haurra edoskitzea helburu nagusi bilakatu zen, eta, egun, guztiz normalizatua aurkitzen da.

Aitzitik, nabarmentzekoa da azken hamarkadetan transformazio esanguratsuak gertatu direla eta uste

dut aldaketa horietako asko botere mekanismoen sofistikatze bezala ulertu behar ditugula. Hau da, transformazio sozial eta feministekin batera estrategia heteropatriarkal berriak garatu dira, mekanismo ugari birkokatu eta zenbait botere teknologia findu.

• DESIRA ETA AUKERA INDIBIDUALAK POLITIZATUZ:

Estrategia patriarkalak identifikatzeko eta iraultzeko ezinbestekoa da botere mekanismoek gure errealitatea, gorputzak, desirak, beharrak eta praktikak sortzen dituztela aintzat hartzea. Diskurtsoak, kategoriak eta esanahiak botere mekanismoak dira eta prozesu konplexuen bitartez gorputzen ditugu. Horrenbestez, gorputza ez da botere mekanismoetik kanpo existitzen, ez da bereizitako eremu esentziala. Prozesu biologikoak esanahidunak eta politikoak dira eta boterea ez da kanpotik gehitzten, baizik eta gorputzak osatzen, egituratzen ditu.

Halaber, boterea dagoen lekuaren erresistentzia dago eta arau haustea, politizazioak askotarikoak dira. Baina erresistentziak eta transformazio feministak indartzeko beharrezko dugu botere mekanismo nagusiak zehaztea, nolakotasunetan arakatzea.

Izan ere, desirak normalizazio prozesuen bitartez ekoiztu eta sustatu egiten dira, hau da, logika patriarkalak jarraituz eta horien mesederako produzitzen. Amatasun desira gorputzak gobernatzeneko teknologia da, eta feminitatearen, emakumearen eta heterosexualitatearen eraikuntza prozesuarekin batera garatzen da. Horrela, adibidez, ohikoa da neska gazteak “amaketetan” jolasten aritzea, handitzean zenbat haur izango dituzten edota zein izen jarriko dizkieten pentsatzen ikustea. Halaber, amatasunak emakumetasuna erregulatzen du, emakume zaintzailearen muin semiotikoan aurkitzen da.

Gaur egun ama onaren nozioa amatasun desiratuarekin guztiz kateatua aurkitzen da. Modu horretan, ulertzen da ama egokiak haurrak guztiaren gainetik maitatuko dituela eta ez dela sekula ama bilakatzeaz damutuko. Hortaz, amatasun desiratua hegemoniko egin denaren beste frogabat dugu. Hori prozesu konplexuekin batera gertatu da, nabarmenen artean antisorgailuen zabalpena, estatuen plan familiarren hedapenak eta abortuaren arautzea. Transformazio horiek borroka eta diskurso feministekin batera garatu ziren, baina baita beste diskurso patriarkalekin ere. Besteak beste, psikoanalisiarekin. Horiek, mendebaldeko gizarteetan XX. mende erditik aurrera hasi ziren nabamentzen eta hedatzen ama ona izateko, zaintza egokia emateko, desiratua izan behar zuela. Bereizketa hori egitean, alegia, amatasun desiratua eta ez desiratuaren arteko, bigarrengoa kokatzen zirenak hauek dira: haur gehiegiz zituzten eta horiek ondo zaintzeko dirurik ez zuten ama pobreak, ama arduragabeak, ezkontzatik kanpo haurrak eduki zituztenak. Hau da, ama txarrak. Horrela, amatasun desira amatasun patriarkal normatiboa naturalizatzeko esparrua bilakatu da. Elixabet Imazek “Convertirse en madre. Etnografía del tiempo de gestación” liburuan azaltzen duen modura amatasun desira naturalizatu egiten da, eta adierazpen askotan amatasun instintuarekin lotzen da. Hau da, hormonekin, azaldu ezin den emozioarekin, sabeletik datorkizun bulkadarekin (Imaz, 2010).

Imazek nabamentzen duen bezala, sozialki kontsideratzen da ez dagoela beharrik amatasun desira, haurrak izatea azaltzeko. Iritzi nagusiaren arabera hori baita jokaera normala, eta, aldi, azaldu behar dena, problematikotzat jotzen dena, desira eza edo haurrak ez izateko nahia da. Ulerkera hori agertzen da ikerketetan, politikan edo jendearen adierazpenetan. Horrez gainera, Imazek ikerketan antzeman

zuen modura, ama gehienei haurrak zergatik izan dituen galdetzeak deserosotasuna sortzen die. Orokorean ez da ohiko ama egiteko zioen inguruan itauntzea, desiraren jatorrien inguruan gogoe-ta egitea. Aitzitik, ama ez izateko erabakia argudiatzeko joera aurkituko dugu, eta askotan berekoita-sunarekin lotzen da. Zuzenean edo zeharka, haurrik ez izatea zure beharrak, askatasuna, denborak lehenestearekin lotzen baita (Imaz, 2010). Haatik, amatasuna, alegia, familia, maitasuna, zaintza erromantizatu eta emozionalizatu egiten dira. Kapitalismoaren garapenarekin batera, esparru horiek familiarizatu eta feminizatu egin dira eta merkatuari egotxitako esanahiekin kontrajarrita eraiki. Horrekin lotuta, amatasun desira arrazionalizatzek eta behar propioak nabamentzeak, moduren batean erromantizazio hori hausten du, amatasun desiraren arau diskurtsiboen aurka egiten du.

Halaber, erabaki eta askatasun indibidualaren erretorika hedatu egin da amatasunaren esparruan. Nabarmendu bezala, emakume ugarik ama bilakatzea aukeratu egiten dute eta hori azpimarratzen da. Haatik, erabaki indibidualaren nozioaren falaziak ezbaian jarri dira feminismotik hainbatetan. Hau-tuaren garrantzia adierazten den bitartean, botere mekanismoen eraginak eta egiturazko kokapenak estali egiten dira. Ez gara banako aske eta arrazionalak, botere eta egiturek zeharkatutako gorputz erlazional eta elkarren menpekoak baizik. Horrela, erabaki indibidualaren erretorika amatasun desi-rarekin korapilatzen da. Batetik, azpimarratzen da amatasuna desiratua izateaz gain egoki planifika-tua izan behar dela. Hau da, une egokian izan behar direla haurrak, adin tarte aproposean, bikotekide egonkorra-rekin eta abar. Bigarrenik, horrekin lotuta, nabamentzen da behin ama izatea erabaki ba-duzu, ama ona izateko ardura osoa duzula. Hautu hori egin baduzu, beti haurren ongizatea lehe-netsiko duzula zurearen gainetik. Horrela, erabaki indibidualaren nozioarekin desira naturalizatua indartu egiten da eta ama ona izateko ardura areagotu. Hau da, ikuskera horrek despolitizatu egiten du eta ardura pribatuaren logika neoliberalarekin zuzenean elkartzan da.

• AMATASUN INTENTSIBOA ETA NEOLIBERALISMOA:

Horrez gainera, azken hamarkadetan amatasun intentsiboa eredu nagusian bilakatu da, eta geroz eta intentsuago, indibidualago eta zorrotzagoa egin da. Hau da, haurren zaintzaren ardura ia osoa amengan kokatzen da eta haur bakoitzari eskainitako denbora, energia, dirua, espektatibak handitu egin dira. Orobak, amatasun intentsibo eta heteropatriarkala, XIX. mendetik aurrera, besteak beste, edoskitze luze eta ekslusiboarekin lotu da, eta baita apegozko zaintza deritzonarekin ere. Hots, hau-rra lehenengo urteetan etengabean erditu duen amarekin egotearekin. Teoria eta ikuspegi horiek feminismotik ezbaian jarri dira, baina, gaur egun ugaritzen ari dira eta hainbatetan helburu eta praktika feministak, antikapitalista edo ekologistekin lotzen dira. Hori zuzenean erlazionatzen da haurrak haurtzaindegira ez eramatearekin, ama etengabean haurrentzat egotearekin, jakiak eta praktika ahalik eta osasuntsuenak izateko ardura amarena izatearekin, amak ahalik eta gehien prestatzeare-kin, haurrak jangelara ez eramatearekin eta abar. Alegia, amatasun intentsiboa indartzen dute.

Amatasun intentsiboa politika eta arrazionalitate neoliberalarekin bat egiten du. Izan ere, zerbitzu eta erakunde publiko-en pribatizazioek familiako emakumeen ardura eta lana handitzen dute. Hau da, amek zenbat eta gehiago zaindu orduan eta merkeagoa izango da haurren hazkuntza erakunde publikoentzat, gizonentzat, kapitalarentzat. Ondorioz, klase sozioekonomiko baxuko emakume edota arrazializatu eta migrataileen zapalkuntza eta esplotazioa areagotzen du. Izan ere, politika neoliberalek banakoaren ardura indartzeaz gain, familiarena ere handitzeko xedea dute. Murrizketen

edota legediaren eraginak izateaz gain, Melinda Cooperrek “Los valores de la familia. Entre el neoliberalismo y el nuevo social-conservadurismo” lanean aztertzen duen modura, autore neoliberal garrantzuenek euren testuetan esplizituki adierazten dute helburu hori. Horrela, kontserbadoreekin alderatuta, neoliberales onartzen dituzte zenbait arau hauste, hala nola, gurasotasun zein ezkontza homosexuala, dibortzioak edota ezkontzatik kanpoko amatasunak. Baino beti ere familiaren ardura indartzen bada (Cooper, 2022). Hau da, zaintza doakoa edota oso merkea bada. Familiako emakumeek maitasunagatik lan egiten badute eta emakume arrazializatu nahiz migratzaileek, prekarizatuenek, horrez gainera, ahalik eta prezio apalenean zaintzen badute.

Ofentsiba heteropatriarkal eta esentzialista baten aurrean aurkitzen gara, amatasunaren eremuan, baina ez soilik, baita trans gorputzekiko, identitate sexuala ulertzeko moduan, zaintza lanekin eta abar. Amatasuna ez dugu arlo bereizi bezala ulertu behar. Horrela, aipatutako politika eta botere mekanismoek amen zapalkuntza handitzen dute, eta aldi berean, patriarkatua indartzen. Horrenbestez, beste dominazio sistemekin jarduten dute eta beraz, heteropatriarkatuak zapaldutako gorputz guztiak zeharkatzen dituzte.

• **AMATASUNA IRAULTZEKO GOGOETAK:**

Amatasuna iraultzeko gogoetak behar ditugu, familian eta feminitatean oinarritzen ez diren zaintza egiturak eztabaидatu, imajinatu, eraiki, ikustarazi, borrokatu. Harawayk nabarmenzen duen modura, bestelako ahaidetasunak sortzeko. Transfeminismo materialistikam amatasun eta gurasotasunaren abolizioaren alde egiteko. Helburu horretarako hausnarketak ez dira berriak, Shulamith Firestonek 70. hamarkadan egindako gogoetetatik hasita, XX. mendean feministak antolatutako “umetokien grebetaraino”. Gurean, esaterako, Jule Goikoetxeak familia eta bikotean oinarritutako zaintza eraisteko proposamena garatu du “Espazioaren produkzioa: hiria, familia, utopia” izeneko artikuluaren. Horrez gainera, egunerokoan familia heteronuklearretik kanpo antolatzen ditugun egiturak ditugu, laguntasuna erdigunean jartzen duten sareak eta loturak. Halaber, amatasun desira politizatu, desnaturalizatu eta transformatzeko moduak pentsatzea ezinbestekoa da, eta horretarako, berebizikoa askatasun indibidualaren falaziak salatzea. Proposamen feministak ezin baitira desira eta erabaki indibidualean oinarritu. Ez, behintzat, gure testuinguruan, patriarkatu neoliberaletan. Are gutxiago, eta inola ere, ikuskera biologista eta esentzialistak birsortu. Orobak, azaldu bezala, haurren zaintza feministaren zenbait ereduk amen ardura eta lana handitzea eragiten dute. Aitzitik, aldarri feministak zaintza feminizatu, familiar eta pribatua transformatzeko eragile bilakatu behar dira. Zentzu horretan, oso argi izan behar dugu amatasuna, familia, erregimen heterosexuala ez direla esentzialak eta etengabean botere teknologiek blaitsu eta sortzen dituztela; horrenbestez, transformatu daitezkeela, eraitsi ditzakegula.

Iosune Fernández-Centeno eta Metxi Bogino



¿CUÁLES HAN SIDO LOS DISCURSOS Y PRÁCTICAS DEL MOVIMIENTO FEMINISTA DE EUSKAL HERRIA EN RELACIÓN A LAS MATERNIDADES?

Nos remontamos a la década de 1970, cuando se crearon las primeras Asambleas de Mujeres y se celebraron las PRIMERAS JORNADAS DE LA MUJER DE EUSKADI del 8 al 11 de diciembre de 1977 en Universidad de Lejona (Bizkaia). Estas jornadas permitieron abrir un espacio de encuentro y reflexión en torno al cuerpo, la sexualidad desvinculada de la maternidad (hetero, homo y la masturbación), el trabajo doméstico y el «trabajo exterior», el Patriarcado y alternativas, o el control de la anticoncepción. Como apunta Mari Luz Esteban (2001), la consolidación de este movimiento se demuestra con la presencia pública que protagonizó en las calles de Bilbao durante los «Juicios por aborto» (López, 2011).

Consideramos un hito fundamental los juicios a «Las 11 de Basauri», que supuso un momento clave en las reivindicaciones feministas por la libertad sexual y el derecho al aborto. Un acontecimiento que trascendió de Euskadi a otras ciudades del Estado español (Esteban, 2001). Como lo relata rigurosamente Isabel Cadenas (2020) en su podcast «De eso no se habla» en el episodio 3 «Una placa en mi pueblo». Las iniciativas del movimiento feminista lograron, en palabras de la antropóloga uruguaya Susana Rostagnol (2018), colocar el tema del aborto en la agenda pública, otorgando visibilidad a las mujeres encarceladas y a los juicios, a las mujeres que viajaban a Londres, Francia u Holanda para abortar y a las muertes de mujeres por abortos clandestinos. Por tanto, los «juicios por aborto» fueron un hito decisivo porque marcaron un precedente fundamental para la aprobación de la Ley del aborto en el Estado español (1985).

Otra de las reivindicaciones y conquista del Movimiento Feminista en Euskal Herria fue la creación de los Centros de Planificación Familiar (CPF) que surgieron por iniciativas vecinales y eran definidos como espacios alternativos a la asistencia sanitaria oficial. En esa época, se luchaba por un centro de información sexual en cada pueblo y en cada barrio. Desde la década de 1980, se reconocen como referentes en la atención de la salud sexual y reproductiva. Por ejemplo, Andraize en el barrio de la Txantrea de Iruña.

Un acontecimiento importante que queremos destacar, en la década de 1990, es la articulación de una Red de Centros de Documentación y Bibliotecas de Mujeres, coordinada por IPES y el Centro de Documentación y de Mujeres Maite Albiz (Bilbao), en la que participan distintas bibliotecas y centros de documentación gestionados por asociaciones de mujeres e instituciones públicas con el objetivo de preservar, archivar y difundir publicaciones sobre género y feminismos, e incluye literatura especializada de maternidades.

Asimismo, el movimiento feminista se nutre del feminismo académico y, entre las referencias más relevantes, se puede mencionar a Teresa del Valle con su publicación pionera «Mujer vasca: imagen y realidad» (1985), que rebatió el matriarcado vasco. Además, queremos mencionar las «múltiples pertenencias» de personas que se mueven entre la militancia política y el feminismo académico o el feminismo institucional, así como la profesionalización del feminismo. Por ejemplo, reconocer el trabajo de las Agentes de Igualdad en la administración pública o el trabajo de formación e investigación feminista desde asociaciones y fundaciones como Emagin o IPES.

Antes de la pandemia, se celebró el “V Encuentro de Movimiento Feminista en Euskal Herria” en Durango (2019), ahí se pudo visualizar, por su ausencia en las ponencias, la necesidad y el interés que había por debatir sobre maternidades feministas y aquí nos encontramos.

¿CUÁLES HAN SIDO LAS MAYORES TENSIONES O FRICCIONES DEL MOVIMIENTO FEMINISTA?

Creemos que las maternidades feministas son discursos, prácticas e imaginarios sociales que siguen en construcción, no exentas de fricciones o tensiones que en Euskal Herria han despertado interés: Carmen Díez ya planteaba en 2000, en el texto «Maternidad y orden social. Vivencias del cambio» la diversidad de experiencias maternales en Euskal Herria; y Elixabete Imaz en su libro «Convertirse en madre. Etnografía del tiempo de gestación» (2010), señalaba la tensión entre un modelo idealizado de maternidad y las prácticas cotidianas. Nosotras nos vamos a centrar en dos tensiones que están atravesadas por el cambio generacional entre las feministas que empezaron a militar en los años 70/80 y las más jóvenes.

Una de las grandes tensiones o fricciones la hallamos en la confrontación de discursos sobre distintas percepciones y conceptualizaciones de la maternidad. Desde el feminismo de la igualdad, se cuestiona la maternidad como destino biológico, el deber de procrear y el mandato cultural de género y parentesco. Las mujeres se convierten en la alteridad y tenemos que despojarnos de la maternidad (Beauvoir, 1949; Badinter, 1980). En los años '70, Shulamith Firestone ya planteaba el uso de las biotecnologías reproductivas como un recurso para liberarnos de la tiranía de la biología y

reorganizar la crianza con el fin de colectivizar los cuidados. La autora proponía abolir la maternidad biológica e individualizada. Y, desde otra perspectiva, el feminismo de la diferencia reivindica la maternidad como experiencia, locus de conocimiento, poder y fuente de placer. En esta línea, Adrienne Rich (1976/2019) en su libro “Nacemos de mujer. La maternidad como experiencia e institución” plantea que la «mujer sin hijos» y la madre son polarizaciones falsas que han resultado útiles para el patriarcado en la institucionalización de la maternidad y la heterosexualidad obligatoria.

Entre las generaciones más recientes, existe una revalorización del cuerpo que plantean estas posturas del feminismo de la diferencia y otras que tienen que ver con el resurgimiento de lo que Mari Luz Esteban denomina el «cuerpo como agente» (2004), que incluye la dimensión corporal, así como lo material o lo emocional. Esta revalorización del cuerpo, llevado al terreno de la maternidad, nos estaría hablando de apropiarse de los procesos físicos vinculados a la reproducción (parto natural, violencia obstétrica, lactancia prolongada, abortos voluntarios o espontáneos, muerte perinatal). También nos estaría hablando de agencia, empoderamiento y placer que la maternidad implica, no sin riesgo, como también señala Esteban, de derivas esencialistas.

La segunda tensión en el feminismo que hemos identificado y que queremos traer a debate es la que tiene que ver con el uso o no de las biotecnologías reproductivas y la industria de la (in)fertilidad que han permitido nuevas formas de procreación. La cara más visible es que estas tecnologías han permitido ser madres a colectivos como por ejemplo las parejas de lesbianas o mujeres solas, aunque principalmente son las parejas heterosexuales las que hacen uso de ellas. Sin embargo, desde los feminismos se han señalado las contradicciones que asoman y se han realizado críticas en dos direcciones: acerca del control biomédico-científico que supone para el cuerpo de las mujeres, las consecuencias físicas, o la falta de información de las implicadas; y también se han realizado críticas por lo que significa la reproducción ligada a la capitalización de los cuerpos y a los «mercados reproductivos».

¿CÓMO SE REFLEJAN LOS NUEVOS MODELOS DE MATERNIDAD?

Para responder a esto queremos hacer referencia a un artículo aún no publicado escrito junto con Elixabete Imaz e Iراتi Lafragua en el 2023 , en el que recogemos y analizamos los productos culturales que hablan de la maternidad y han tenido un auge notable en los últimos años. Estos dispositivos abordan el tema desde diferentes ángulos, principalmente desde una perspectiva que se autodenomina feminista y pueden tener forma de ensayos, novelas, guías, cómics, documentales, blogs, teatro (como la obra “Madre de azúcar” estrenada este otoño y que aborda el tabú de la maternidad con diversidad funcional).

Lo primero a destacar en estos productos culturales es la necesidad de la reapropiación de la maternidad. En nuestro trabajo una de las conclusiones a las que llegamos es que existe una ruptura con los dictámenes paternalistas de los expertos (ginecólogos, pediatras, psicólogos...) que desde mediados del siglo XVIII tutorizan lo concerniente al proceso de ser madre desde una posición de poder científico. En este momento el conocimiento se rejeraquiaza y priman las voces de mujeres que, desde la experiencia, hablan a las iguales. A esta reapropiación de la maternidad, sin lugar a dudas, ha ayudado Internet, las redes sociales, las comunidades online. En estos

espacios podemos visualizar fácilmente la maternidad como un espacio de poder para transmitir conocimiento.

Desde estos espacios online y desde los medios de comunicación se ha podido intervenir en debates sociales y políticos como se ha podido observar en el tema de la violencia obstétrica (el Ministerio de Igualdad anunció la inclusión de su reconocimiento en la futura reforma de la ley 2/2010 de salud sexual y reproductiva y de la interrupción del embarazo).

Lo segundo a destacar es la necesidad de visualizar la diversidad de maternidades, de reinventar la maternidad. Desde estos productos culturales se reivindican nuevas maternidades no normativas como las maternidades lésbicas, de relaciones polioamorosas o trans, y también maternidades que ya estaban en nuestro entorno, pero habitaban la periferia como la maternidad en solitario, maternidades afines (o madrastras, de familias enlazadas), transraciales, migrantes, de criaturas con diversidad funcional, de acogimiento o adoptivas.

¿CUÁLES CREEES QUE SON LAS BASES QUE EL MOVIMIENTO FEMINISTA DEBERÍA TENER EN CUENTA PARA ACERCARSE AL ASUNTO DE LAS MATERNIDADES?

Nos parece importante salirnos del foco de atención de la maternidad biogenética, y proponemos reivindicar y repensar la maternidad social y las no-maternidades.

En la actualidad se visibiliza una maternidad centrada en los procesos biogenéticos, pero nos parece interesante sacar el foco de ahí que, como hemos comentado, nos puede llevar a derivas esencialistas, y pensar la maternidad como un espacio que se puede habitar y al que se puede acceder por la puerta del embarazo y parto, pero puede no ser así, como por ejemplo en el caso de las madres afines, la adopción o el acogimiento, o simplemente, en el caso de parejas lesbianas, la que no ha parido. Poner en valor estas maternidades.

Por otro lado, nos parece interesante también repensar qué pasa con la crianza. Tenemos más diversidad de modelos acerca de cómo llegar a ser madres, pero, salvo excepciones y que muchas veces van a contracorriente, a la hora de la crianza la mayoría de las veces seguimos teniendo a la familia nuclear como modelo de referencia. Creemos que necesitamos otros modelos que tienen que ver con las redes, con lo comunitario, con la ecología, con repensar espacios privados y públicos para poder maternar, espacios amigables con la infancia. También podríamos compartir y aprender de las compañeras migrantes o gitanas, acerca de otros modos de crianza. Por ejemplo, Silvia Agüero (2021) nos habla de maternidades gitanas, y propone gitanizar la maternidad y el mundo. Ana Lucía Hernández-Cordero (2020) indaga los significados de maternidades migrantes y la materialización de sus afectos a pesar de la distancia. Estas mujeres a través de la circulación de cuidados en redes familiares femeninas, más allá de las fronteras, están modificando las formas de hacer familia.

Otro eje de trabajo que tenemos que plantearnos es romper la dicotomía maternidad y no-maternidades porque el estigma sigue recayendo en «personas sin descendencia» generando cierta sorpresa e incomodidad social y se expresan en distintas representaciones de mujeres incompletas, potencialmente peligrosas y siempre bajo la sospecha de alguna anomalía. Son las raras, las no-maternidades deseadas y elegidas (Anzorena y Yáñez, 2013).

REFERENCIAS

- Agüero, Silvia. (2021). Maternidad gitana. crianza en tribu. Violencia etno-obstétrica. Gitanizar la maternidad y el mundo. En M. llopis (ed.), *La revolución de los cuidados* (pp. 99-122). Txalaparta.
- Anzorena, Claudia y Yáñez, Sabrina. (2013). Narrar la ambivalencia desde el cuerpo: Diálogo sobre nuestras propias experiencias en torno a la «no-maternidad». *Investigaciones Feministas*, 4, 221-239. https://doi.org/10.5209/rev_infe.2013.v4.43890
- Badinter, Elisabeth. (1980). *L'amour en plus: Histoire de l'amour maternel : XVII/XX siècle*. Flammarion.
- Beauvoir, Simone de. (1949). *Le deuxième sexe*. Gallimard.
- Cadenas, Isabel. (2020). *Episodio 3: Una placa en mi pueblo [podcast]*. De eso no se habla. <https://deesonosehabla.com/episodios/episodio-3-una-placa-en-mi-pueblo/>
- Del Valle, Teresa. (1985). *Mujer vasca: Imagen y realidad*. Anthropos.
- Díez Mintegui, Carmen. (2000). Maternidad y orden social. vivencias del cambio. En T. del Valle (ed.), *Perspectivas feministas desde la antropología social* (pp. 155-186). Ariel.
- Esteban, Mari Luz. (2001). *Re-producción del cuerpo femenino. Discursos y prácticas acerca de la salud*. Tercera prensa.
- Esteban, Mari Luz. (2004). *Antropología del cuerpo: Género, itinerarios corporales, identidad y cambio*. Bellaterra.
- Firestone, Shulamith. (1976). *La dialéctica del sexo*. Editorial Kairós.
- Hernández-Cordero, Ana Lucía. (2020). “Abrazar con palabras y besar con la voz”: Una experiencia etnográfica del significado de ser madre migrante y la materialización de sus afectos a pesar de la distancia. *etnografías contemporáneas*, 10, 38-67.
- Imaz, Elixabete. (2010). *Convertirse en madre. etnografía del tiempo de gestación*. Cátedra.
- López, Ohiane. (2011). *La defensa del derecho al propio cuerpo y la construcción del movimiento feminista. Juicios por aborto a 11 mujeres de Basauri (1976-1985)*. Trabajo de fin de máster dirigido por Miren ILLona. UPV/EHU
- Rich, Adrienne. (2019). *Nacemos de mujer: La maternidad como experiencia e institución*. Traficantes de sueños.
- Rostagnol, Susana. (2018). Abortion in andalusia: Women's rights after the gallardón bill. *Antropología*, 5(2), 113-136. <https://doi.org/10.14672/ada20181460113-136>



Parean Elkartea

ATSOLORRA, AMATASUNAK FEMINISMOTIK

Amatasunaren instituzioak historian izandako bilakaera aztertzen du Adrienne Richenek “Emakumeagandik jaioa” saiakeran eta amatasuna instituzio patriarkal edo esperientzia pertsonal gisara banatzen ditu. Noski, amatasunak instituzio gisa baldintzatu eta mugatu egiten du, baina feminismoaren erronka amatasunaren instituzio patriarkala suntsitzean eta esperientzia pertsonala askatzean ez ote dago?

Gure ustez amatasunak lantzko aukera zabaldu behar du feminismoak, amatasunaren gaiari eutsi eta ahizpatasun kolektibotik begiradak elkarbanatzeko abagunea. Helburu horrekin sortu zuen Parean elkarteak Atsolorra deitu diogun proiektua. Atsolorra garai batean Euskal Herrian egiten zen jaiotza-erritua zen. Egun ia galdua dagoen erritu horretan, haurra jaiotako baserrira auzoko emakumeak bisitan joaten ziren, ama berriari laguntzeko asmoz. Atsolorraren erritua Eliza Katolikoak bataioaren betebeharra ezarri aurrekoa zen, hau da, XVI. mende aurrekoia.

Gure atsolorrarekin amatasun feministak eraikitzeko plaza sortu nahi izan dugu. Amatasunak ezartzen digun kortsea hautsi eta askatasunez hausnartzeko. Batetik, emakumeei hitza eman eta entzuteko asmoz saio ezberdinak egin ditugu Gipuzkoan zehar. Era berean, saioetan bildutako iritzi eta biziak aberasteko, inkesta bat zabaldu genuen sare sozial ezberdinak medio.

Amatasunaren inguruko inkesta 143 lagunek bete dute, denen ahotsa batuz, amatasuna nola bizi dugun ezagutu eta ikertu nahi izan dugu eta ondorengo lehroetan saio zein inkestaren bidez jasotako biziak eta ondorioak laburbilduta daude. Ikerketa osoa ezagutu nahiz ez gero, [www.parean.eus-en dago. \(\[https://parean.eus/wp-content/uploads/2022/11/atsolorra_IKERKETA.pdf\]\(https://parean.eus/wp-content/uploads/2022/11/atsolorra_IKERKETA.pdf\)\)](https://parean.eus/wp-content/uploads/2022/11/atsolorra_IKERKETA.pdf)



Ama izateak gaur egun, bizitzako esparru ezberdinetan uko egitea dakar. Inkestatutako %73,7ak aitortzen du ama izatea erabaki zuenetik gauza askori uko egin behar izan diola. Ama izatea ala libre izatea planteatu zaigu askotan dikotomia gisa. Eta noski, ez dugu guk ukatuko ama izateak denbora eta esfortzua eskatzen duenik, baina non dago arazo? Amatasunean ala bizitzaren logikaren aurka doan sistema sozioekonomikoan?

• INDARKERIA SINBOLIKOA

Ama izateko presioa badago, %51ak onartu du presio hori sentitu duela noizbait, eta oraindik oso gogorra da ama izan nahi ez izatea. Are larriagoa da ama izan nahi eta ezin dutenen egoera, norberak bizi duen prozesu zailari, doluari askotan, aurre egiteaz gainera, ingurukoen presioa jasan behar izaten dute. Gutxi hitz egin da, ama izan nahi eta ezinez, eta gutxiago abortuaz eta heriotza perinatalaz.

Gazteek pairatzen duten langabezia eta prekarietatea, etxebizitza duina lortzeko aukera eskasak eta zaintza eta ordaindutako lana bateragarri egiteko neurri eraginkorrik ez egoteak, asko atzeratzen du ama izateko erabakia. Eta honek, nahi edo ez, haurdun geratzeko aukerak murrizten ditu.

Interes enpresarielek antolatutako gizarte eredu hau, bizitzaren erritmoen kontrako da. Geroz eta gehiago dira haurdun geratzeko erreprodukzio teknikak behar dituzten emakumeak. Honek amatasuna pribilegio bihurtzen du, izan ere, osasun sistema publikoaren zerrenda amaigabeen ondorioz (adin muga ere izan ohi dute), askok jotzen dute osasun zentro pribatuetara. Diruaz haratago, halako prozesuak oso gogorrak izan ohi dira, bai fisikoki zein mentalki.

Gure ustez gurasotasuna ez da eskubide bat. Guraso izateko desioa zilegi izanik, horrek ez du esan nahi eskubidea denik eta gurasotasuna ezin da besteek eskubideen gainean eraiki; eta beraz, ezin da onartu haurdunaldi subrogatua eredu gisa.

Haurdunaldi subrogatuaren oinarrian menpekotasun ekonomikoa dago. Pobreziak bultzatzen ditu emakumeak euren gorputzak alokatu eta besteek umeak izango direnak erditzen. Haurdunaldi subrogatua sistema kapitalistak merkantilizatutako prozesu biologikoa da. Emakumeek haurrak sabelean heztekotzat duten gaitasuna negozio bihurtzeko ariketa.

Amatasun eta haziera ereduak. Inkestatutako ia %64a aukeratutako amatasun ereduagatik epaitua sentitu da. Ama bihurtzen zarenean, bi amatasun eredu kontrajarri jartzen zaizkizu begien aurrean: amatasun eredu patriarkala edota neoliberala, erabat merkatuari lotutakoa. Eedu patriarkal eta neoliberalari alternatiba gisa, azken urteetan indarra hartzen ari duen haziera naturala edo atxikimenduzko haziera eredu dugu.

Eedu honek ekarpen oso positiboak egiten ditu, zaintzak beharrezko duen garrantzia hartzen du, eta interes sozioekonomikoak alboratuz, bizitzaren erritmo eta logikak lehenesten ditu. Haatik, eredu hau ez dago herritar guztien eskura, izan ere, hazierarako beharrezko denbora eskatzen du, eta beraz denen aukera ez den esfortzu ekonomikoa.

Eedu bakoitza zurruna eta kontrajarria da bestearekin. Zaintzaren ardura baina, emakumeen esku jarraitzen du eredu guztieta, eta zaintzaren ardura erruz beteta daramagu emakumeok sorbalda gainean.

Amatasunean baina, dena ez da zuria edo beltza eta eredu bakoitzak bere alde onak eta bere arriskuak ditu. Kontzienteki edo inkontzienteki eredu baten alde edo bestearen alde jotzen dugu. Bainanoski, hau ez da erabaki erabat librea, bakoitza bere testuinguruari eta aukera ekonomikoei hertsiki lotua eta baldintzatua dago. Hau da, erabaki ideologikoaz haratago, bakoitzak ahal duena egiten du. Dituen baldintza eta aukeren arabera, malabarismo ezinezkoak eginez, ahal duen moduan bizirauten du.

Ama bakoitzak duen egoera eta testuinguruarekin ahal duena egiten saiatzen dela onartzen badugu, geure artean kritikatu baino, ez da al da eraginkorragoa, ahizpatasunez elkartu eta benetan amatasuna itogarri egiten duen sistema kapitalista eta patriarchalaren aurka elkarrekin jotzea?

• KONTZILIAZIOA

Amatasun eta aitasun bajak urriak izateaz gainera, ordaindutako lanari lotutako prestazioak dira, beraz, langabeziak edo kontraturik gabeko lan merkatuan aritzen diren pertsonak ez dituzte eskumen horiek. Haur jaio berrien zaintza ez luke eskubide unibertsal bat izan behar?

Eta baimen hauek bukatzen direnean zer? Inkestatutako emakumeen %95ak amatasunak euren lan ibilbidean eragina izan duela aitortu du. Lanaldi murrizketek eta eszedentziek papera garrantzitsua jokatzen dute kontziliazio ariketa horretan.

Baina noski, lan murrizketa eta eszedentzia hartzeko premia eta aukera oso lotuta dago norberaren behar sozioekonomikoekin, eta emakume asko dira lan eskubide hauek hartzeko aukerarik ez dutenak.

Seme-alaben zaintza lanak emakumeen bizkar egoteak ondorio asko ditu lan ibilbideetan: kotizazio etenaldiak, jardunaldiaren murrizketak, kotizazio oinarri txikiagoak, eszedentziak... eta honek guztiak orainean ez ezik lan ibilbidearen garapenean eta ondorengo prestazioetan ditu ondorioak; pentsioetan ere genero arrakala egon badagoelako.

Kontziliazioaz ari garela, guraso bakarreko familiekin bizi duten egoera nabarmendu beharreko elementua da. Guraso bakarreko familien % 81,1ean emakumea da heldu bakarra eta honek beharrakoa egiten du guraso bakarreko familiaren gaiari genero-ikuspegitik heltzea.

Etxe barruko kontziliazioa ere gatazka askoren iturburua da. 2021ko Eustateko datuen arabera, emakumeek egiten dituzte etxeko lanen %67,2 Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan.

Lanaldi bikoitzak, lan-merkatuan eta etxeko eremuan, kostu emozional eta pertsonala handia eragiten du emakumeengana eta bereziki amengan. Inesta bete dutenen %80 baino gehiagok onartzen du amatasunak eta honek eragiten duen zamak euren osasun mentalean eragina duela. Zaintzak dakartzan konplikazioei Pandemiak ekarritakoak gehitu behar zaizkio, Koronabirusak ekarri zuen itzialdiak inoiz baino nabarmenago utzi zuen “gizarte familiarista” batean bizi garela eta etxeko lau pareten artean bizi ziren horien artean antolatu behar zen lan ondorioak eta zaintza lanak. Etxe barruan baina, orekarik ez, eta emakumeek jasan zuten zama latzena.

Amatasunaren hautuak beste bide eta aukera batzuk moztu egiten ditu. Hala ondorioztatu daiteke erantzunak ikusita, izan ere, inkestatuen %73,7ak aitortzen du gauza askori uko egin behar izan diola

ama izatea erabaki zuenetik. Emakumeen bizitzetan garrantzitsuak diren espazio eta denbora tarte ugari alboratu beharrean aurkitzen dira zaintza lanak medio, eta momentuan uko txiki gisa ikusten ditugunak, gerora gabezi handiak ekar ditzaketa erakutsi dute inesta bete duten emakumeek.

Haurren kanpo zaintzarako dauden baliabideak erabat eskasak dira, hala deritzo inkestako %87,1ak eta baliabide horien prezioa gehiegizkoa dela ere iritzi diote %75ak.

Asko hitz egiten da tribuaren beharraz, baina inkestak argi utzi du % 84,3ak haurren zaintzarekin moldatzen ez direnean familiarengana jotzen dutela lehen aukera gisa. Honek aiton-amonen, eta bereziki amonen figura jartzen du mahaigainean. Zaintza jasotzaileak diren arren, zaintzaile pape-rean aritzen dira muxu truk.

Eta zaintza lanak azpikontratatzen ditugunean, emakume etorkinak dira oro har gure aiton-amonen kargu egiten direnak, gure etxeak garbitu eta umeak zaintzen dituztenak. Paradoxikoki gainera, askotan gure seme alaben kargu egiteko, euren seme alabak sorterrian utzi behar izan dituzte, askotan beste emakumeen esku. Fenomeno honi, zaintzaren kate globala deitzen zaio.

Familia biologikoaz haratago doazen zaintza ereduen alde egitea ezinbestekoa da. Familia geroz eta txikiagoak ditugu, eta beraz laguntza eskaini dezaketen norbanakoak gutxiago dira. Arkitektonikoki ere modu isolatuagoan bizi gara, bakoitzaz bere pisuan, familia ugari batzen zituen baserrien ordez... Bainaz material bat izateaz gainera, aldarrikapen ideologiko bat izan behar du. Zaintza familia nuklearretik kanpo kokatu behar dugu. Afrikako esaldi zahar baten arabera, ume bat heztekoi tribu oso bat behar da. Zaintza kooperatibo edo komunitarioaren alde apustua egin behar da.

• INDARKERIA MATXISTA

Indarkeria matxista ematea ahalbidetzen duten elementuak “zaurgarritasun ekonomikoa, mendekotasun emozionala, sostengu sozial falta edo kontziliazio eza” dira. Hala iritzi dio elkarritzetatu dugun Irule Abokatuak elkarteko Garazi Plazaolak eta tamalez, amatasunak egungo gizartean zaurgarritasun ekonomikoa, bakardadea, mendekotasun emozionala eta sostengu falta dakar askotan. Inkestatutako %97tik gora uste du emakumeak egoera ekonomiko baxuagoan uzten dituela amatasunak eta menpekotasun ekonomiko horrek emakumeak are zaurgariago bihurtzen gaituela ere iritzi dio %88 pasatzok.

Indarkeria matxista sufritzen duen eta ama den emakume batek zama bikoitza duela uste du Plazaolak. “Amatasunak, bereziki lehen hilabete eta urteetan, dakarren pisuarekin, emakumeek ez dute euren burua zaintzen eta beraz zaildu egiten da indarkeria egoeratik ateratzeko indarrak eta baliabi-deak lortzeko prozesua. Biziraupen egoera horretan zauden bitartean zaila da tarteak hartzea eta egoerari buruzko kontzientzia hartzea, eta ondoren indartu eta hortik ateratzen hastea”, dio.

• GORPUTZA ETA SEXUALITATEA


Emakumeon gorputzak erditze prozesu batetik igaro ostean, eraldatu egiten dira. Erditu eta bi egunetara gorputz mehe eta estereotipatuak erakusten dizkigutenean komunikabide eta famatuak ez dute

onik egiten. Gorpuzt aldaketek emakumeen autoestimuan dute eragin handia eta autoestimua aldi berean, ongizate emozionalaren oinarria da. Inkestatutako %82ak onartu du aldaketak hauek medio bere bizitza sexuala aldatu dela ama izan denetik. Baino aldaketa ez du zertan okerrera izan behar. Sexualitatea dinamikotzat hartzea, bizitzako etapa desberdinatan modu desberdinean adierazi eta biziko dela ikasi beharko genuke, izan ere, gure sexualitatea ezagutzea eta horren jabe egitea gure ahalmen sortzailea berreskuratzea da.

• ONDORIOA

Feminismoak lortu du amatasuna aukera bat izatea eta ez emakumeen eginbehar bat. Emakume-ama binomioa gaindituta, ez al da garaia amatasunaren esperientzia nola eta zein baldintzetan bizi nahi dugun erabakitzeko?

Eta bide hau ahizpatasunez egin behar dugu. Ama bakoitzak duen egoera eta testuinguruarekin ahal duena egiten saiatzen dela onartzen badugu, ez da al da eraginkorragoa, ahizpatasunez elkartu eta benetan amatasuna itogarri egiten duen sistema kapitalista eta patriarkalaren aurka elkarrekin jotzea?



Estitxu Fernandez eta Erika Lagoma



JASO DITUZUEN TESTIGANTZA ZEIN ESPIRINTZIETATIK (ZUEN LANAREN ONDORIO NAGUSIAK), ZEIN ERRONKA IKUSTEN DITUZUE MUGIMENDU FEMINISTAN LANTZEKO?

Mari Luz Estebanek Mugimendu Feministaren emakume zaharren ildoa bat aldarrikatu du. Garrantzitsua litzateke amatasunek ere bere ildoa izatea.

Ez gara Otik hasten. Justa Monteroren hitzak: “amatasuna inposaketa gisa ikusten genuenok intransigenteak izan ginengoa, leku gutxi eman genien amatasuna beste modu batean bizi nahi zuten emakumeei. Hau da, oso erabilgarria izan daiteke orduko eztabaidea eta planteamendu teorikoetara itzultzea, baldin eta gure praktika ez-hegemonikoekin aldatzea lortu dugunarekin kontrastatzen badira.

Sistema orokorraren baitan dauden sistemak identifikatu ditugu, amatasunak zeharkatzen dituzten indarkeriak kokatzeko. Zeri erreparatu amatasunak bizigarriak izan daitezen.

1. Klasea, arraza, gaitasuna, adina...:

Amatasuna, gaur egungo baldintzetan, oso emakume gutxirentzat da bizigarria, baina denon eskubide behar luke bizigarri izatea, ez emakume zuri, ez gazte-ez zahar, ez gaixo, klase ertaineko pribilegio...

2. Norberaren gorputza eta psikobiografia:

- Haurdunaldi, erditze eta erdiondoa etapa zaurgarri bezala ulertzea, eta bizi duten pertsonengaren ematen diren aldaketak ezagutu eta duten garrantzia errekonozitzea.
- Hasiera horretan erdituko den emakumeak edo pertsonak egin nahi duena erabakitzeko eskubidea bermatua izatea (izan abortatu, izan umea adopzioan eman, izan bera izan edo ez izan zaintzaile nagusi hasierako hilabeteetan...)

- Taldeak, ama taldeak bultzatu. Bizipenak konpartitzeko guneak.
- Bakardadeaz, epaiaz eta erruaz hitz egin behar dugu.

3. Bikotekidea, baldin badago:

- Inplikazio berdina gurasotasun osoan.
- Umea jao berritan, ez dute funtzi bera umearen inguruko pertsona heldu guztiekin. Horrek ez du esan nahi inplikazioak ez duela bera izan behar. Bikote heterosexualetan zuzenki interpelatu behar ditugu gizonak.
- Familia ez normatiboen eskubideak aldarrikatzea.

4. Umea:

- Eskubide osoko pertsona dela onartzea, eta ondorioz, bizitzaren hasiera zaugarriak dituen beharrak ezagutzea eta bete daitezen bermatzea, modu batera zein bestera.
- Heldukeriaz betetako gizartea salatzea.
- Umearen zaintzaren ardura denona dela aldarrikatzea.
- Bizitzaren hasierako garai horren zaugarritasunaz ohartuta, adoptatutako edo harreran hartutako umeen zaintzari duen garrantzia eman eta guraso horien eskubideak aldarrikatzea.

5. Sistema familiarra eta komunitarioa

- Familien sostengu politikez harago, sarearen beharra. Sare familiarrek zein komunitarioek askoz bizigarría egiten dute amatasuna.
- Familiaren instituzioa auzian jartzea.
- Komunitateak sendotzea.
- Kolektiboan hazteko moduak ikusaraztea eta legez onartuak izan daitezen borrokatzea.

6. Sistema administratiboa

- Erregistroetako eskakizunak. Bikote bolleroek eta ama bakarrek jasaten dituzten zaitasun eta eskakizunak salatzea.
- Adopzio eta harrera prozesuak aztertu eta ekarpenak egitea.
- Gizarte zerbitzuen praktikak aztertu eta ekarpenak egitea.

7. Osasun sistema:

- Indarkeria obstetrikoari heltzea (NBEak azken bi urteotan bi epai historiko atera ditu honen harira, batek Osakidetza salatzen du eta ama euskaldun bati aitortzen dio Indarkeria Obstetrikoa pairatu duela).
- Garai perinatala, bereziki erdiondoa, akonpañatzeko baliabideak eskatzea.
- Osasun mental perinatala zaintzeko neurriak eskatzea.
- Laguntza bidezko ugalketaren harimutur guztiak ikusaraztea.
- Abortu errespetatua bermatzea.
- Osasun sistemako profesionalekin aliantzak sustatzea.

8. Sistema laborala, hezkuntza sistema:

- Amatasun baimenen gaiari heltzea (aspaldiko eskakizuna da bederen 6 hilabetekoia izatea)
- Zaintzarako laguntza unibertsalak edukitzea, ez lan kontratuarekin lotuta: Zaintza erabakitzeten duen pertsonak, ez badu zaintza externalizatu nahi, baliabideak izan ditzala.

- Zaintza eta lana kontziliatzeko erraztasunak jartzea, ez bakarrik lanera lehenbailehen bueltatze-ko erraztasunak. Bereziki lan-malgutasuna gurasoentzat gurasotasun osoan....
- Haur eskoletako baldintzak duintzea.
- Haur eskolak ez daitezela izan aukera bakar.
- Eskoletako zaintza eredu produktiboa birpentsatzea.
- Hezkuntza sistemako profesionalekin aliantzak sustatzea.

9. Sistema judiziala eta legeak

- Hego EHko epaitegietan umearen beharrak kontuan hartu gabe zaintza partekatua nola ematen ari diren salatzea.
- Tratu txarra jaso duten amak eta haien umeak babestea.
- Indarkeria bikarioa eta GAS edo Gurasoen Alienazio Sindrome faltsua salatzea.
- Alokairuzko sabelen auziaren hutsuneak salatzea.

10. Militantzia

- Amatasuna eta militantzia uztartea zaitasunez betetako bidea da.
- Espazioak ama eta umeen beharretara egokitzten saiatzea. Sukaldea eta jolaserako espazioa ba-dute, uztarketa errazagoa litzateke.
- Batzarrak egiteko ordutegiak birpentsatzea.

11. Balio sozialak:

- Nahiko nabarmen gelditu zaigu bizi garen sistema honek ezartzen dituen bizi baldintzak direla itogarriak, horrek egiten duela amatasuna ez bizigarri, ez amatasunak berak.
 - Argi dugu ere bai, patriarkatuak amatasuna erromantizatzen duela, emakumeok bakarrik zaintzara kondenatzeko.
 - Guk libururako eta bestela entzun ditugun ehunka amen testigantzak, ordea, amatasuna idealizatzetik urrun ikusi ditugu. Euren asmoa ez da idealizatzea, esentzializatzea, amatasunak duen balio sozio-eko-nomiko eta politikoa aitortzea baizik, eta hortaz, amatasuna, eta orohar zaintza, eskubidez betetzea.
 - Era berean, sistema neoliberal honek badu zaintza gutxiesteko joera ere, zaintza marroi bezala ikusteko joera, autonomia balio goaren modura hartzeko. Hortik ere urrutit sentitu ditugu gurekin egon diren amak.
 - Zaintza naturalizatzearen kontra agertzen diren bezalaxe, errefusatzen dute zaintza erabat es-ternalizatzearen eredu, izan ume, izan zahar edo edozein pertsona dependiente. Bi ereduak jartzen dituzte zalantzan.
 - Eedu desberdinak egoteko, amatasun anitzak bermatzeko, bakoitzak berea aurrera eraman ahal izateko aukera errealak eskatzen dituzte.
 - Amak zaintza eskatzen ari dira, funtsean. Eta ama ez direnak, gizonezkoak noski, baina baita gizartea osoa ere, zaintzara ekarraraztea. Batak ez du bestea kentzen. Hitzekin oso kontuz ibili behar da batzuetan, zer esan nahi dugun eta zer ulertzen dugun, gure zauriek bustita daude maiz. Borroka honetan, gehitu egin behar dugu. Gauza bat aldarrikatzen dugunean, alde batean indarra jartzen ari garenean, ez garela beste bati indarra kentzen ari. Bata eta bestea, ez bata ala bestea.
- Gure liburuan agertzen diren bi esaldirekin bukatuko dugu:
- Ez badio feminismoak amatasunei begiratzen, nork begiratuko dio?
 - Feminismoak behar ditu amak. Amok behar dugu feminismoa.

June Fernandez

ZEIN ERRONKA IKUSTEN DITUZUE MUGIMENDU FEMINISTAN LANTZEKO?

Erikak eta Estitxuk bota duten galderari tiraka, amatasunei begiratzen ez badiegu, ez ditugu agendan kontuan hartuko feminismoaren arreta behar duten arazo, zapalkuntza eta erronka pila bat. Gehien landu ditudan hiru erronkak garatuko ditut: indarkeria obstetrikoak, lagundutako ugalketa sistemari kritika eta familia hetero-disidenteei aitzorta. Gero, denbora ematen badit, ama bollooen ekarpenari buruzko hainbat ideia botako ditut.

- AGENDA:

1. Indarkeria obstetrikoak:

Ezinbesteko iruditzen zait momentu historiko honean Euskal Herriko mugimendu feministaren agendan lekua egitea. Espainiako Estatua nazioarte mailako zigorra jaso du Donostiako Ospitalean ama batek pairatu zuen indarkeria obstetrikoagatik. Osakidetzaren erantzuna benetan tamalgarria izan da, ez du ardurarik hartu eta emakumearen hitza zalantzan jarri du.

Kasu honek argi uzten du zergatik den indarkeria matrixista: sexu indarkeria da, bortxaketarekin antza handia du, estereotipo sexistean oinarritzen da (pasiboak ez bagara, histerikoak eta esajeratuak deituko gaituzte), autoritate patriarkalaren izenean egiten da, emakumeon hitza eta adostasuna emateko eskubidea zalantzan jartzen da, eta gainera biktimizazio bikoitz ematen da: paritorioan bortxa eta, salatzen dugunean, justizia patriarkalaren indarkeria.

Eva Margarita García argumenta en su tesis, que la violencia obstétrica es una forma de control social patriarcal que legitima a profesionales de la salud a “doblegar la voluntad de las parturientas, de manera simbólica, psicológica y física”, ya que “el empoderamiento incomoda profundamente a los protocolos establecidos y hace tambalear los cimientos mismos del poder biomédico”.



Emakume horren urteetako borroka benetan miresgarria izan da eta gainera emakume hori feminista da, erreferente bat da Euskal Herriko amatasun feministen unibertsoan, eta mugimendu feministen babesa merezi du, eskatu du gainera.

2. Lagundutako ugalketa sistemari kritika:

Biziki gomendatzen dizuet Sara Lafuente Funesen *Mercados reproductivos* liburua, Katakrak-ek editatu duena.

- Spainia da mundu mailan bigarren potentzia, obulu-salmenta sustatzeko baldintzak ematen direlako. Arreta jarri behar diogu obulu donanteek bizi dutenari, obodonazioaren sustapenari... Dinamika heteropatriarkalak ematen dira hor.
- Klinikek lobby moduan funtzionatzen dute. Esaterako, lortu dute mugatzea nazioarteko semen bankuetara jotzeko aukera. Lehen bollerok (eta ama bakarrek) erraztasun handiz eros genezakeen semena Danimarkan online etxeen intseminatzeko, baina horrek kalte egiten zion industriari, eta presionatu zuen osasun profesionalek soilik erosteko aukera izan dezaten.
- Lobby honen beste merkatu estrategia bat da bikote lesbianoi ROPA metodoa saltzea, diskurtso biologizista maltzur batekin: batek obulua jartzen badu eta besteak ernaldu, biok izango garela benetako amak. Ama bollok esaten dugu gure ekarpena hain justu kontrakoa dela, lotura biologikoaren garrantzia zalantzan jartzea.
- Osakidetzako intseminazio eta in-vitro prozesuak ugalkortasun problemak dituzten bikote heteroetarako pentsatua daude. Hala, bolleroi eta amabakarrei inposatzen zaizkigu heteroei egiten dizkieten proba inbasibo berdinak, normalean ez dute onartzen hormonazio barik egitea zikloa, ROPA metodoa ez dute onartzen... ROPA metodoa estrategia egokia izan daiteke zenbait egoratan, izan adin arrazoiengatik, osasun arrazoiengatik edo arraza arrazoiengatik, besteak beste.
- Osakidetza lodifobia. Dirua aurreztek argudioarekin kanpo uzten dituzte emakume lodiak eta nagusiak, murrizketak egin dituzte, gero eta adin baxuagoa eta gero eta IMC baxuagoa exijitzen dute. Ez dute pertsonaren osasun egoera baloratzen. Emakume lodiak kasuan benetan larria da bizi duten tratua, dieta basatiak egitera animatzen dituzte: 20 kilo argaldu behar dituzu hurrengo hilabeteetan edo ez zaitugu intseminatuko. Ez dute osasun-argudiorik ematen. ARGIA publikatuko dut erreportajea.
- Azken aipamen bat: mugimendu feministan haerdunaldi subrogatuei buruzko diskurtsoa garatzea. Itziar Alkorta dugu akademian, Josebe Iturrioz edota Ianire de la Calva aktibismoan, gaia sakonki pentsatu dutenak. Eta EH Bilduk egin zuen lege proposamena. Baino iruditzen zait ez dela diskurtso hori zabaldu eta kolektiboan bere konplexutasuna eta irtenbide zehatzak hausnartu.

3. Familia heterodisidenteetako aitortza:

- Ama ez-haurdunen aitortza, mugimendu feministak Familia monomarentalen legea eskatu behar du.
- Bikote bolloo umea bion izanean erregistratzeko bi baldintza diskriminatzaile inposatu dizkigute: ezkondu behar garela eta ugalketa zentro batean sortu behar dugula.

- Bigarren baldintza horren arrazoia da gizonek ezin dutela aitatasuna ukatu eta, hortaz, lagun edo senide bati semena eman dion gizonak beti izango du aitatasuna aldarrikatzeko aukera. Justizia patriarkala berriro ere agertzen da eta ama ez haudunak babesgabe geratzen dira. Mehatxu horren ondorioz, bollera gutxi batzuk egiten dute autogestioaren alde eta familia nuklearrean oinarritzen ez diren ereduen alde, ziurgabetasuna handia delako.
- Aldarrikapen oso importante bat: bi guraso baino gehiago dituzten familiak aitortzea. Erregistro zibiletan, guraso eta zaintza baimenetan, herentzieta... Bolloen eta mariken arteko gurasokidetasun akordioak erraztuko lituzke, familia ez monogamoak babestu...
- Nazioarteko adopzioen kasuan, estatu gehienek bikote heteroak bakarrik onartzen dituzte (ez guraso bakarrak), eta gutxi batzuk soilik onartzen dituzte bikote homosexualak. Gurasobakar moduan adoptatzea da estrategia bat, baina horrek armairuan bizitzea dakar. Ez daukat argi zein den aldarrikapena hor baina, Estitxuk eta Erikak esan bezala, ondo legoke adopzio-sistemaren inguruko analisia eta kritika garatzea.
- Gurasotasun baimenen alorrean tramtazio arazoak eta diskriminazioak. Ama bakarren aldarria da bereziki importantea, baina ama trabak eta egoera surrealista izan ditugu. “El padre es una mujer, el sistema no lo reconoce”. Guraso baimenak berdinak eta intransferibleak izatea ere inposizio heteroa da. Gizonen implikazioa behartzeko erabaki baldin bada, zergatik ezin dugu guraso bollook izan aste transferible batzuk?
- Amatasunaren inguruko iruditeria zabaldu, feminitateari, heterosexualitateari, bikoteari eta monogamiari lotua dago. Komunitatean hezteko esperientziak ezagutzen eman eta dituzten trabak salatu.

• 2- AMATASUN BOLLOEN EKARPENA:

- Gracia Trujillo eta Eva Abrilen esanetan, inposizioaren eta alienazioaren diskurtsoa heterozentrata dago, amatasun bolloaren motorea ia beti delako desira, eta gehien-gehienetan oso prozesu kontzienteak dira. Eztabaidatu dezakegu ea egun sistemaren homonormalizazio dinamika honetan amatasun lesbikoak sustatzen ari diren, eta nola egin ihes asimilazio indar horri. Guraso izatea era-baki dugunok epaitzea baino, komeni litzateke sistemak inposatzen dizkigun marko normatiboak kritikatzea: ezkontzaren inposizioa, autogestionaren boikota...
- Ama bollo eta familia heterodisidente esperientziak eta kontraesanak interesarriak izan daitezke zenbait meloi irekitzeko orduan, adibidez, biologiarena eta atxikimenduarena, gurasotasun baimenen eztabaidan oso presente dagoena. Gure taldean oso importantea izan da honi buruz hitz egitea, askorentzat bereziki frustragarria izan delako onartzea ez garela bi ama trukagarri, haudun egoteak eta erditzeak eta edoskitzeak implikazio batzuk dituela. “Amatxo bolloen tribuan irakur ditzake-zue” ama haudunen eta ama ez-haudunen korapilo emozionalak eta gatazkak.
- Ama bollo feministok bakardade bikoitza bizi dugu nolabait, esparru transfeministetan amatasunaren kontrako jarrera delako nagusi, eta amatasunari lotutako esparruak heterozentratuak dau-delako orohar.

- “Bollo feministok, neurri batean, ihes egin diogu emakumeen kategoriari, eta sistemaren arrakala horretan sartu gara, arnasa hartzeko, esperientziak sortzeko eta ama izateko eta munduan egoteko modu berriak asmatzeko. Geure desioen jabe eginda, ama izateko desira barne, etengabe heteropatriarkatua deseraikitzen ari gara”
- Diskursoa moldatze horretan, amatasun heterodisidenteek duten indar eraldatzailea aitortzea. Elena, Bizkaiko Emakume Asanbladako militantea, bollera eta amabakarra: “Ez nuen epai hori espero, feminismoa traizionatu dudala ematen du. Azken finean, sortu nahi nuen proiektua ez zen patriarkala: ez nintzen ezkonduko, ez nuen tipo batekin egingo... Argi neukan nahi nuen bizi proiektua aurrera eramatea nire eskubidea zela, eta segurtasun hori feminismoak eman zidala”.
- Ama bolloon kasuan, heteroaraua arrakalatzen dugu eta ikusgaitasun lesbikoaren ekarpenea egiten dugu esparru klabeetan: osasun sisteman, guraso-elkarteenan, patioan... Liburuko elkarritzketen esanetan: “Ispilu bat gara. Bollera feministok gauzak beste era batera egiteko asmoa ekartzen dugu, kolektiboan gainera. Halaber, guraso izateko beste erreferentzia batzuk ekartzen ditugu, leihorri berriak irekitzen ditugu. Hori askatasunerako bide bat da” “Zartako bat gara heteroarauarentzat. Bi-kotearren barruan berdinak eta erantzunkideak izateko nahia eskaintzen dugu. Hobeto bizi daitzekeela erakusten diegu”.
- Gure umeek ere egiten dute aktibismo feminista eta kuirra. “Nire ekarpenea neskato indartsu bat izan da. Eragiteko modu bat da: feminismoa kutsatzen die lagunei”. “Maisu, galdera bat: zakila zertarako?” “Normaltasunaren bidean sartzeko hezi gintuzten; normaltasun horrek ez gaitu ordezkatzen, eta ez zaigu gustatzen. Normaltasun hori zalantzan jartzen laguntzen diegu gure seme-alabei, eta ahaldundu egiten ditugu”.

• EZTABайдAN SARTU NAHIKO NUKEEN BESTE IDEIA BAT:

- Diskursoari dagokionez, importantea iruditzen zait kontuan hartzea amatasunak feminismora hurbiltzen dituela emakume asko. Hau da, amatasunaren esperientzia dela emakume askoren kontzientzia hartze politikoaren pizgarria. Hori gertatzen denean, oso etsigarria iruditzen zait mugimendu feministara hurbiltzea eta amatasunaren kontrako diskursoekin eta jarrerek topogunea, izan esplizituak edo por omisión, amatasunari lotutako gaiak agendetan ez sartzea, amen militantzia errazteko neurriak ez hartzea, etab.
- Horren harira, iruditzen zait feministometroa alboratu beharko genukeela eta amatasunen esparruan antolatu diren emakumeekin zubiak eraiki. Nahiz eta diferentzia diskurtsiboak edo politikoak izan ditzakegun, iruditzen zait aitortu behar dugula PETRA plataformaren lana, El partido es nuestro bezalako elkarrenea, haien aldarriak entzun eta babestu.
- Ama taldeetan egiten ari den feminismoa edo, behintzat, elkarlaguntza eta ahizpatasun praktikak ezagutu eta aitortu.



Amatasuna ez da irla bat. Nola (ez)egin ama?

Estolda intimo-politikoak. (Ez)amen ahotsak

Bidaia bati ekitera goaz, amatasun eta (ez) amatasun anitz ezagutzeo. Gurekin nabigatuko dute ilusioek, erruek, desirek, eta erronkek... Itsaso zabal batean igeri ibiliko gara, eta gatzak erreko dizkigu begiak beharbada, topo egingo baitugu minarekin, hutsuneekin, bakardadeekin. Ondotik pasatzen ikusiko ditugu familia sistemak eta instituzioak, ikusezin egin nahi gaituen trasatlantikoaren andamioak, baina topatuko ditugu, aingurua hegodunak ere; tribuak eta komunitateak... hondoratzen utziko ez gaituztenak. Eta lur mutur batetik bestera, topo egingo dugu ezagutzen ez genituen hamaika bizipenekin, beharbada, geure esperientziak gorpuztu eta ulertzen lagunduko digutenak.

Korronteari segika, errazagoa zelakoan iritsi gara lehen kaira, heteroarauaren logikak gidatzen zuen lur mutur desiragarria. Zuloz betetako lur ez-egonkorrairekin aurkitu gara, ordea. Ausentziek, presenzia gehiegi hartzen duten lekua, hain zuzen ere.

Galdu zidatenean ea nire esperientzia kontatu nahi nuen jardunaldi hauetan, nolabait, familia

heteronormatiboen esperientzia kontatzea es-
katu zidatenean, onartu behar dut deserosotasun
apur bat sentitu nuela, normalean ez dudalako
nire burua ama heterotzat definitzen, nahiz eta
ongi badakit definitza behar ez izateak talde
hegemonikoaren parte izatearen pribilegioetako
bat dela.

Askotan galdu diot nire buruari zergatik ditugun
batzuk erreparoak edo deserosotasuna sentitzen
dugun amatzat definitzerakoan gure burua, eta
esango nuke, nire kasuan, behintzat, beldurra
dudalako rol orohartziale horrek nire bizitza eta
nire identitatea irensteaz. Askotan pentsatu dut
alabak izatea gustatzen bazait ere (egun batzuk
beste batzuk baino gehiago, jakina!), ama iza-
tea, ez bereziki, aukeran aita izatea nahiagoko
nuke, beste gauzen artean, ez dutelako bizi behar
disyuntiba horrekin eta, askotan, gainera, familia
bat izateaz disfrutatu ahal dute, zaindu behar
izan gabe, ez zaintzearen pribilegio daukate eta
horrela aitortzen zaie. Badakigu ondo arazoa
ez duela zertan izan behar amatasuna bere
horretan –bere horretan egongo balitz-, baizik
eta amatasuna gauzatzeko dauden baldintzak
ra, gatazka ebitatzen saiatu naiz (sonatzen dizue ezta?). Gainera, erantzun behar izan dut niregatik eta nire gurasoengatik. Ze, noizko egingo dituzu aitton amonak? Burua jeitsi dut behin eta berriz eta konektatu behar izan dut gurasoen hutsunearekin, edo gizartea zurekiko eta bereziki zure gurasoekiko sentitzen duen penarekin, nik zerbaitek okerra egingo banu bezala... hain erreza denean, eta hain normala. Hain politak izango zire, hain familia harmoniatsua izango zineten, hain zoriontsu denak... Eman umeak, egin zaitez benetako emakume behingoz. Damutuko zara. Zein egoista zaren. Zeinek zainduko zaitu zahartzen zarenean? Bizitzako gauzarik ederrena da. Inoiz ez duzu maiteko ezer zure umeak bezain beste. Zein bakarrik egongo zaren hemendik urte batzuetara. Ez duzu horre-

tan pentsatu? Damutuko zara. Damutuko zara. Presioaren erreplika.

41 urte ditut eta zorionez ez didate hainbestetan galdetzen hori. Se me esta pasando el arroz, eta nik hori pozez bizi dut. Ez dakit damutuko naizen, hori denborak esango dit. Bainaz azken gauza batzuk argi ditut: nire bizitza gustatzen zaidala gehiene-tan, maitasun pila eman eta jasotzen dudala nire sarearen aldetik, maite ditudala inguruko umeak, nahi ditudala zaindu, nahi dudala haienkiko ardura hartu (ez beti... ratiko bat...jiji) baita ama egiten diren lagunen ondoan egon nahi dudala ere. Eta nire bi katu beltzak munduko konpainia onena di-rela. Eta katuz inguratutako atso zaharraren irudiak asko jartzen nauela. Zer nahi duzue esatea...

Bidaia honek ez gaitu beti nahi dugun kaira eraman. Nahi eta ezinekin topatu gara. Kapitalismoa eta medikalizazioa arroka erraldoi baten gisan agertu zaizkigu pare-parean. Gure gorputzak makinak balira bezala behatu dizkigute. Eta tratatu. Desirak ez direla eskubide ulertzeko gai ere bagara, ordea. Eta batzutan ezina, ekinez ere ezinda. Ez gaitu beti desiratu dugun horrek betetzen gainera, askotan kontrakoa ere gertatzen da. Eta zoriontsu izan gaitezkeen portuak askotarikoak dira.

47 urte ditut eta ama izan nahi nuen baina, saiatu arren, ez nuen lortu, edota ez zen posible izan.

Gaurkoan etapa batzuk kontatuko dizkizuet.

Nik betidanik izan nahi izan dut ama. Gazteta-tik iada irudikatzen nintzen heldutasunean se-me-alabekin; betidanik oso argi izan dudan gauza bat da.

Obarioetako gaixotasun bat daukat eta hogeita-zak urterekin arazotxo bat izan nuen eta gineko-logoekin bueltaka nenbilela, 28 urterekin galdu zidaten ea seme-alabarik izateko asmorik nuen. Baietz erantzunda, Osakidetzako Erreprodukzio Arlora bideratu ninduten zuzenean.

Eta hor beste mundu bat eta beste etapa bat hasi ziren.

Hasiera batean froga desberdinak egin zitzuten eta gero tratamentuekin hasi ginien. Tratamen-tuak egiterakoan, hormonazioa kontrolatzeko bizpahiru egunean behin analitika egitera joan behar da. Lehenengo aldiz joan nintzenean, goi-zeiko 8retan itxaron gelan sartu eta zera aurkitu nuen, emakumez betetako gela bat, denak ixilik, buru makur, triste... ez dakit ondo nola azaldu, baina ni asko inpaktatu ninduen sarrera horrek. Gutxi batzuk bazeuden hizketan (ematen zuen au-rettik ezagutzen zirela) aurrekoetan eman zioten medikazioaren aipamenak egiten, e.a. Bapatean bati entzun nion: "...niri duela lau urte egin zida-tenean...", orduan nire buruak klik egin zuen. Etxe-ra bueltatzean bikoteari esan nion ni ez nintzela 4 urte ondoren leku horretan egongo amargada aurpegiarekin. Mugarri bat izan zen.

Tratamendu desberdinak egin genituen, batzuk

suertatu ziren eta beste batzuk ez. Abortu bi egon ziren eta horrek froga gehiago eta denporan lutzatzea suposatu zuen, gero berriro tratamentua...

Guzti hau garai tristea bezala gogoratzen dut, garai gogorra eta azkenerako obsesiboa ere, haundunaldia lortzea obsesio moduko bat zen... Eta hiru urte luze eta gero nik egon nahi ez nuen puntu horretan ikusi nintzen. Nahi ez nuen egoerara heltzen ari nintzela ulertu nuen. Horregaitik erabaki genuen azken tratamendua egingo genuela. Ondo ateratzen bazen primeran, eta ez bazen ateratzen akabo.

Aurreko batzuetan bezala haudun geratu bai baina galdu egin nuen. Orduan prozesu horrekin amaitzeko garaia heldu zela esan genuen. Medikuek oraindik bai protokoloagatik eta bai gazteak ginelako jarraitzeko aukera ematen ziguten, baina guk ezetz esan genien eta etxera joan ginen.

Noski, gauza bat da zerbait esatea, pentsatzea. Eta bestea da momentua heltzen denean erabakia irmo egitea eta aurrera jarraitzea.

Momentu horretan beste etapa bat hasten da. Azkenen finean dolu bat da, betidanik nahi izan dugu gauza bat eta ez da izango eta hor dolua hasten dugu, hasieran pena handiarekin. Gure bizi-planteamendua goitik behera aldatu behar izan genuen, bizi-planteamentu berria eraiki genuen gu bion artekoa eta lagun eta senitartekoez inguratua. Eta apurka-apurka gaur egunera heldu arte, 15 urte pasa dira.

Seme-alabarik ez dugu izan baina iloba pila di-

tugu inguruan, eta 8retan beraien etxera joaten dira, jejej. Gustu hori hartu diogu bizitzari. Bizipoza beste nonbaiten aurkitu dugu.

Azken etapan gaude, urteak pasa dira eta ni ondo nago. Gustura nago hartu genuen erabakiarekin. Niretzat, nire izaeragatik, garrantzitsua izan zen erabakia nik hartzea, honaino heldu gara eta hemen amaitu da esatea. Beste batzuk nahiago izango dute medikuek azken aukera eman arte sariatzea; baina niretzat garrantzitsua izan zen nik erabakitzea noiz amaitu, horrek gero lagundi egin dit aurrera egiten. Denborarekin pena joan egin da, bizimodu berri bat hasi genuen eta gu lasai gaude, ondo.

Tratamenduak egiten ari ginela, agian adinagaitik, ez ziguten seme-alabetaz galdetzen. Geroago hasi ziren galderak, hasieran "umeak noizko?" eta orain "nolatan ez duzue umerik?..." Nik naturaltasun osoz erantzuten dut nahi genuela, saiatu ginela baina ez zela posible izan eta listo. Orduan, normalean, jenteak penaz begiratzen dit eta amorrua ematen dit (gero eta gehiago gainera) jenteak penaz begiratzea nik pena hori ez dudanean.

Hori dela eta urte batzuk daramatzat pentsatzen jendarteak edo sistemak nahi duela ama izan nahi eta lortu ez dugunok frustatuta bizitzea betiko. Frustazio horieraman behardugula soinean betiko. Agian nire per-tzepzioa da eta beste batzuk ez dute horrela bizi, baina nik horrela sentitzen dut. Nahi eta ezin izan dugunogatik frustatuta bizitzea espero dela. Eta ez du zertan, bizipoza edonon bait dago.

Ama egin garenak eta ez garenak, denok behar ditugu aingurak edertasunez eta zailtasunez beteko itsaso gazi gozo honetan. Umeak hazi eta heztekoi iruditegi anitzagoen bila gabiltza. Ikusarazi nahi ditugu bestelako eredu batzuk. Izan litezkeela sinisteko eta abian jartzeko.

38 urte ditut, ama ez izatea erabaki dut eta gaur egun nire lagunen amatasun proiektuan parte hartzen dut.

Ama ez izatearen erabakia nahiko argi izan dut beti. Esan dezaket amatasunaren esperientzia ez zaidala bereziki interesatzen. Beste mila espe-

rientzia bizitzeko gogoa eta grina izan dut eta dut, baina amatasunak inoiz ez dit erakarri.

Amatasunarekiko interes falta hori nondik datorren pentsatzen jarri naizenean ikusi dut haurtzaroan nire heziketan gertu izan ditudan pertsonek eskaini didaten ereduek pisu handia izan dutela niregan. Gurasoez aparte, nire bi izebek zaindu ninduten txikitán, eta bietako inor ez da ama. Gainera, izeba bat bollera da. Nik asko miresten nuen izeba hori. Bere lagun taldera eramatzen ninduen, bere partidak ikustera joaten nintzen... Garai hartan bollera asko, gehienak, ez ziren ama izaten. Eta uste dut nik eredu horretatik edan dudala.

Hortaz aparte, nire haurzarora joanda, ni ume marimutila izan nintzen. Pack guztia nuen: ile motza, belarritakorik ez, eguna futbolean jolasten pasatzen nuen, mutilekin erlazionatzen nintzen, generoa gehiegi markatzen ez zuen izen arraroa nuen... Nire maskulinotasun horretan uste dut amatasuna beti femeninoegitzat hartu izan dudala; "pegatzen" ez zidala iruditzen zitzaidan. Horrekin lotuta oso positibotzat jotzen dut orain bollera butch-ak, transak, etab. ama direla ikustea. Beste iruditegi berri bat sortu dela iruditzen zait, oso beharrezkoa.

Bestalde, nire izakera ikusita, nire bizitza estiloari begiratuta, esan dezaket ama izateak dakarren lotura estuak erreparoa eta errespetu handia ematen didala. Uste dut ez doala nire izateko eta bizitzeko moduarekin bat. Nire interesak aurrera eramateko orduan, amatasunaren lotura estuegia egiten zait niri.

Hala ere gaur egun "zaintza sare" baten parte naiz, eta ez naiz ama, baina heziketan eta zaintzan parte hartzen dut.

Orain dela ia 8 urte gertu nituen bi lagun bollera pisukidek galdetu zidaten ea beren etorkizuneko umearen proiektuaren parte izan nahi nuen. Niri proposamenak ilusioa egin zidan, baina ez nuen sentitzen nire momentu bitala egokia zenik horrelako asunto batean sartzeko. Ez neukan burua oso

zentratuta eta ez nuen nire bizitokia oso egonkor sentitzen. Orduan gertu ibiliko nintzela esan nien, baina ez nuela konpromezu estu eta iraunkor bat hartu nahi.

Hortik urte batzuetara, nire bi lagun min bollera haurdun gelditzeko prozesuan hasi ziren eta lortu zuten. Ni ordurako egonkortuago nengoen; nire etxea nuen, nik aukeratutako bizilekua eta familia hautatu marabilosoa. Esan behar dut haurdunaldian zehar ez nuela izugarrizko emozio potenterik sentitu. Jendeari asko gustatzen zaizkio haurdunaldiak, baina niri ez didate askorik esaten. Jende batek oso gertutik jarraitzen ditu, baina horixe, nik ez gehiegi.

Nire lagunaren haurdunaldian sentimendu goxoak baino zalantzak eta beldurrak gehiago izan ziren: nola izango zen gure harremana nire laguna erditu ondoren? Asko aldatuko al zen beraien presentzia egunerokotasunean? Gure hizketaldi guztiak haurraren ingurukoak izango ote ziren? Noiz egin ahalko nuke parranda nire ama lagunekin berriz?

Orain dela 3 urte pasatxo nire lagunen haurra jaio zen. Jaio orduko sekulako poztasuna eta emozioa sentitu nuen. Haurdunaldiak ezer gutxi esan zidan bezala, pertsona txiki hori munduan ikustea izugarria izan zen. Hasiera-hasieratik konexio handia sentitu nuen haurrarekin. Berarekin egoteko gogoa nuen. Egunero ikusi nahi nuen. Eta horrela izan zen eta da. Bere bizitzan gertu dagoen pertsona naiz, odolezkoa ez den izeba moduko bat. Zaintzan parte hartzen dut. Harreman estua sortu dugu eta bere amekin ere harreman estua dut. Esan behar dut ez naizela izeba bakarra, gure lagun-taldean badira zaintzan inplikatuta dauden pertsona gehiago ere. Gertu bizi izan dudan lehenengo jaiotza eta haurra da. Ni ere sorpresaz harrapatu nau hasieratik izan dugun konexioak, nire inplikazioak eta nire berekiko maitasunak. Amatasunak interesa piztu izan ez didan bezala, esperientzia honek hasieratik harrapatu nau. Agian eragina izan zuen lehenago beste lagunen proiektuan parte hartuko ez nuela esateak. Agian

eragina izan du nire momentu bitalak, nire oso lagun minak izateak. Agian eragina izan du lehendik genuen zaintza-sare estuak. Agian eragina izan du bi amek ez dutela amarik gaur egun, odo-leko familial anaia bakarra izateak. Agian, eta ziur asko, eragina izan du bi amen irekitasunak eta patxadak. Guraso asko ez daude prest beren umeak “uzteko”, “elkar banatzeko”, baina hau ez da nire lagunen kasua.

Esan behar dut gaur egun harreman honek, “ize-batasun” honek, asko ematen didala eta izugarri betetzen didala. Heziketari buruz asko ikasi dut: mugimendu askea, mugak, babes, elikadura, umearen garapena, hizkuntzaren ikaste prozesua... Hasieratik izan dut interesa eta ama baten jakintzatik eta bestearen pazientziatik, batez ere, izugarri pila ikasi dut. Obserbatuz, galdetuz, imitatz asko ikasi dut. Esan behar dut bizitzako esparru askotan balio izan didala ikasitakoak, baita

nire lanean ere. Haurtzaroari eta haurren garapenari buruz gehiago jakiteak nerabeak ulertzen eta onartzen lagundu dit.

NOLA GAUZATZEN DUGU ZAINTZA HORI?

- Kurtso hasieran nire ordutegia bidaltzen dut Whatsapp taldera. Astean behin ikastolara joaten naiz umearen bila. Esklusibitatea eskaintzen diot.

- Antolaketan parte hartzen dugu. Pluralean hitz egiten dugu askotan, parte egiten gara: nola egingo dugu? Nola antolatuko gara?

- Amek bizitza soziala izan dezaten eta militantzian jarraitu ahal izan dezaten antolaketa errazten diegu. Euren bizitzak ez dira paralizatu.

-Bikote harremana osasuntsu mantentzeko koblertura ematen diegu.


Planak haurrei begira egokitzen ditugu: ordutegiak, plan motak...



Ortزمugari begira, lurmuturrak, kaiak eta itsaso erdian aurkitutako bazterrak arakatuz “amatasunak” edo “ez-amatasunak” ez direla irla bat ondorioztatu dugu. Eta feminismoa izeneko lur eremuaren parte izan daitezke denak ala denak. Korrontearen alde nahiz kontra aurkitu ditugun erru, min, hutsune, ausentzia eta bakardadeak irauli nahi ditugu kolektiboki antolatuz, hori guztia ahalbidetzen duen egitura patriarkal kapitalista eta arrazistaren kontra. Gazitutako begiraden gainetik, urazaleratu ditzagun irribarre erdiak bederen! Bagarelako feminismotik, eztabaidan eta (ez) adostasunean ere, atseden hartzera etzan gaitezkeen “gu” zabal bat eraikitzeko gai.



Txakur Gorriakek (Ez)amen ahotsetatik sortutako irudia.





D'embarassos, maternatges i masculinitats.

Haurdunaldiak, amatasunak eta maskulinitatea

Amatasunaren eta, bereziki, haurdunaldiko eta edoskitzaroko prozesuen irudikapena genero-gorputz eta -adierazpen jakin batzuek ordezkatu dute beti: emakume femeninoek. Hala ere, esperientzia horien errealitatea askoz ere anitzagoa da, eta pertsona askok ez dute erreferenterik aurkitzen prozesu horietan islatzeko. Proiektu honen bidez, irudi eta diskurtso berriak eman nahi zaizkio gure iruditeriari, haurdunaldiko eta edoskitzaroko prozesuak bizi izan dituzten adierazpen eta estetika maskulinoa dituzten emakumeen irudikapen bisuala sustatzuz. Argazki-saio batetik sortutako erakusketa batetik harago, amatasunaren eraikuntzan erreferente pluralen gabezia eta horrek identitatean, gorputza-ren autoestimuan edo desioan dituen ondorioak politizatu nahi dituen aldarrikapena ere bada. Pieza horien bidez, hiru aktibista horiek beren adierazpen maskulinoa duten gorputzetan haurdunaldiaren eta bularra ematearen inguruko hausnarketak eta zalantzak azaltzen dituzte.

Hiru ekintzaileek beren haurrekin argazkiak ateratzen dituzte dinamika hori hausteko, ikusgarritasun ariketa eskuzabal bat eginez. Ariketa horretatik beren esperientziak partekatu nahi dituzte, haurdunaldiaren, bularra ematearen eta hazkuntzaren askotariko erreferenteak sustatzeko.

1. HAURDUNALDIAREN ESTETIKA

Edo zergatik ez dago estetika maskulinoari dagozkion arropak haurdun dauden pertsonentzat?

Gure iruditerian, feminitateak epizentrorik handienetako bat amatasunaren irudikapenean aurkitzen du, zehazki haurdun dauden emakumeen gorputzetan. Pre-ama izeneko modako praka eta soinekoetatik hasi eta arropa honen publizitatean agertzen diren modeloetaino, emakumetasun mainstream-ari, heterosexuali, zuriari eta klase ertainari lotutako estetika oso zehatzak dituzten emakumeak irudikatzen dituzte.

Hori da, beharbada, gure ibilbideetan agertu zen lehen tentsioetako bat, emakume haurdunentzako arropa aurkitzeko zaitasuna, feminitatearen iruditeriaren barnean sartzen ez zena.

Hori bereziki zaila izan da, zalantzarik gabe, arropa funsezko tresna baita norbere ordezkaritza konfiguratzeko. Feminitatearen eta haurdunaldiaren arteko lotura jakintzat ematen duen kontakizun bisual horrek, azkenean, emakume haurdunengan feminitatea berez naturala den ideia indartzen du; alta, amatasunaren erakuntza soziala da haurdunaldiaren esperientzia feminitatearekin esentzializatzen duena. Horren ondorioz, emakume haurdunek estetika maskulinoekin dituzten esperientziak ikusezin bihurtzen dituzten diskurtso horiek, azkenean, horiek imajinatzea ere ezinezkoa bihurtzen dute. Eta erreferente-gabezia horrek eragina du gure nortasunaren eraketan, ama edo hazitzaile ga-

ren aldetik, eta gure gorputzak eta gure adierazpen irudikatuak ikusteko beharra ere badugu, horrela geure burua pentsatu eta proiektatu ahal izateko.

2. GORPUTZ-ALDAKETA

Edo zergatik ez dago edoskitzaroko materialetan ile motza duten emakumeen argazkirik?

Haurdunaldia gorputzeko aldaketa oso indartsua da, eta funtsezkoa da fisikoki ondo egotea, eta, esan bezala, ondo ikustea, ispiluan ezagutzea eta atsegin hartzea. Eta haurdunaldia gorputzaren aldaketa garrantzitsua bada, edoskitzearren fasean aldaketa horren esposizio soziala gertatzen da maiz, eta espazio publikoan gorputzaren zatiak erakutsi behar dira. Zehazki, bularren erakusket-a publikoa, feminitatea emakumeen gorputzean kokatzeko sozialki erabili den gorputzaren zatia. Edoskitzearren eta maskulinitatearen arteko uztarketa horrek salatzen gaitu, ezabatu egiten ditu gure eguneroko hegiak, non ez den argi geratzen gizonak edo emakumeak garen, edo adierazten digu identifikatzen ez garen feminitatearen iruditeria zein den.

Erakusketa honek areagotu egiten du horietako askok gure gorputzekiko harremanean dagoeneko bizi dugun tentsioa. Tentsio hori, neurri batean, bularra ematen duten emakume maskulino erreferente ezarekin loturik dago. Edo modu zabalagoan, titiak izatearen eta feminitatearen arteko loturarekin. Errepresentazio falta horrek ondorioak ditu gure gorputzak pentsatzeko moduan, eta, une batzuetan, gure gorputzarekiko distantzia edo ondoez sentitzera iritsi gara, ez baikara identifikatzen hartatik abiatuta gizartea dizkigun esleipenekin.

3. GURE MASKULINITATEA GUSTATZEN ZAIGU

Edo nola haurdunaldi eta edoskitze prozesu batek feminitatearen armairura itzuli gaituen.

Gure adierazpen maskulinoa gure nortasunaren adierazpen garrantzitsua da, eta emakume gisa dugun esperientzian dugun oreka-puntuia. Eta feminitatearen estetikekin inoiz identifikatu ez bagara ere, haurdun geratzearen esperientziak erabat eraldatu du gainerakoek gugan duten begirada. Jada ez gara emakume maskulinoak, genero-rol normatiboen dinamiketatik kanpoko lesbianak, orain AMAK gara, orain kontuan har gaitzakete emakumeek erreserbatutako espazioetan. Are gehiago, emakume maskulinoa izatea mehatxugarri zen testuinguruaren onarpen soziala jaso dugu, amatasunak esleitzen digun funtzi soziala eta feminitatearen rol tradizionalen onarpena irudikatzen diuelako. Prozesu horri esker, “amak” kategoria bihurtu da, lehen (nolabaiteko deserosotasunarekin) bizi zen “emakumeak” kategoria baino askoz ere kategoria zurrungoagoa. Izen ere, azken kategoria horretan, gizartea hala interpretatzen zuen maskulinitate adierazpen-espazio bat konkistatua genuen.

4. LESBIANA SEXY MASKULINOAK GINENEKOAK

Edo nola desagertu garen sedukzioaren zirkuituetatik ama bihurtu ondoren.

Maskulinitatearen inguruan dugun esperientzia desioaren zentzuan dugun identitatearekiko zatiezina ere bada; adierazpen maskulino bat (erabat neurrira eta kontzientziaz egina) da desio dugun,

seduzitzen dugun eta sexualki eta afektiboki erlazionatzen garen lekua. Bainan, berriz ere, amatasunaren iruditeriak gure identitateetan izan duen eraginak gure maskulinitatea deskonfiguratu du alderdi horretan ere. Askotan sentitzen dugu emakumeen arteko sedukzio-zirkuituetatik desagertu garela, eta emakume maskulinoek erakartzen dituztenek guri begiratzeari utzi diotela. Amatasunak gure sexu-komunitateen iruditeria sexualera eraman izan bagintu bezala. Amatasunak, emakumeak sedukzio-zirkuituetatik kanporatzen dituen esperientzia gisa, emakume askori ere eragiten dien errealitatea dela badakigu, amatasunaren eta maskulinitatearen arteko gurutzaketan beste faktore batzuk ere eragiten dutela uste dugu.

Horregatik uste dugu beharrezkoa dela emakume maskulinoetan amatasunaren esperientzia berresanahitza, esperientzia hori zentzu maskulinoan erotizatzea eta ama maskulino sexy gisa aurkeztea.

5. AMAK?

Edo nola ama maskulino izatearen esperientziak hausten duen amatasunaren iruditeria tradizionala

Hainbat unetan, haurdun geratzeko prozesuaren ondorioz, galdera hauek berrikusi ditugu: zer den ama bat, zerk egiten zaituen ama, nortzuk diren amak eta, batez ere, ea “ama” kategoriak guri balio zigun. Amatasunaren esperientzia oso lotuta dago feminitatearekin, eta aitaren eta maskulinitatearen irudian aurkitzen du bere antagonista. Ama eta aita, bikote arketipikoa, rolak argiak eta zehaztuak dituena. Bainan zer gertatzen da gizona/emakumea, beraz, aita/ama araua betetzen ez duten familietan? Bainan zer gertatzen da adierazpen maskulinoa amak gorpuzten badu? Ama edo aita izatea zure sexuaren araberakoa da? Zure generoaren araberakoa? Zure hazkuntzan egoteko moduaren araberakoa da? Zer eragiten du gizartean emakume maskulinoen haurdunaldiak? Zergatik daude hain erreferente gutxi eta zergatik gara hain ikusezinak? Gu ama kategorian egon gaitezke/egon nahi dugu? Ama-nortasunaren ordez ama egitearen ekintzaz hitz egin dezakegu? Edo ama izateko ideiaren iruditeriak zabaltzen dira, edo gu ez gara ama; mumus, buma, maris, mapa, bubus, gaga izango gara? Hitzak ez badatoz bat gure bizitzarekin, ez al ditugu aldatu behar?

EPILOGOA

Azalpen honek isiltasun horri aurre egin nahi dio, eta erreferente izan nahi du emakume maskulinoentzat edo etorkizunean gure prozesu berak hasiko dituztela ikus dezaketen beste identitate batzuentzat. Espero dugu amatasunaren iruditeria guk aurkitutakoa baino beroago eta atseginago bat eratzen lagunduko duela, eta beste emakume maskulino askok identifikaziorako espazio bat aurkituko duela. Maskulinoak diren ama egiteko posibleak diren moduak badira, ahalduntzaleak eta desiragarriak, eta ez dute amatasunaren iruditeriaren gainetik dagoen genero-arauetara makurtzerik nahi.

FITXA ARTISTIKOA:

Jatorrizko ideia: Alba Badia Mas, Gràcia Camps Miró eta Marieta Rojo | Argazkiak: Silvia Poch | Arte zuzendaritza: Hugo Cornellas Llobregat | Testuak: Alba Badia Mas, Gracia Camps Miró eta Marieta Rojo, Miquel Missé Sánchez en laguntzarekin | Collage, ilustrazioak eta diseinua: Alba Feito eta Marieta Rojo | Begirada globala: Alba Feito | Bideoak: Abel Cunillera Nogué | Markoen eraikuntza: Ferro Calent | Serigrafia: Pau Nadiecreations | Eskerrak: Kotu, Barbi, Moxe, Sagrera Primavera, Ona Bros, Maria Romero, Pol Galofre, las Pepis, Nerea Velasco, Eva Vela, Arantza Labuena, Wille Tuyl. |

Bartzelonako Centre LGTB!ren ekoizpenarekin.

Gurasotasun bolleroak: esperientzia posible bat

Maider Beristain Fernandez / Leire Ziluaga Lopez



2022ko maiatzean *D'embarassos, maternatges i masculinitats* erakusketaren berri izan genuen, parte-hartzaleetako batzuk lagunak direlako, eta esker ona sentitu genuen, amatasunarekin / gurasotasunarekin lotutako iruditeria, orokorrean, feminitate jakin bat lerratua da-goelako, oso zisheteroa eta normatiboa delako. Azoan, (*Ez*)amatasunak ikuspegi feministatik jardunaldietan egon zen erakusketa ikusteko aukera, eta, aitzakia horrekin, solasaldi batera gonbidatu gintuzten antolatzaileek, erakusketako kide Gràcia Camps Mirórekin batera. Galdera sorta bat bidalí ziguten solasaldia prestatzeko, eta egun horretarako idatzi genituen erantzunetatik azkar-azkar osatutako testua da hau.

GU NOLA IZENDATU

Duela gutxi, parkean, ume batek esan zion gutako bat: "Bietako zein da amago?". Maiderrek erantzun zion ea zer esan nahi zuen *amago* horrekin, eta umeak bost urte zituenet, azaltzea kostatzen zitzainez, eta zer esan nahi zuen susmatzen zuenez, galduen zion: "Esan nahi duzu gure

umea zaindu, pixoihala aldatu, berarekin jolastu, lotan jarri, etab.?". Eta baietz erantzun zion. Orduan Maiderrek esan zion horiek denak biok egiten genituela, batzuetan batek eta besteetan besteak, eta umeak erantzun zuen: "Nire etxean amak egiten du hori dena".

Are zuzenagoa izan zen gizon bat haurdunaldian: aitaren papera nork egingo zuen galdetu zigun.

Jende batek bollera bikote bat ikusten duenean, galdera egitera ausartu ez arren, horixe pentsatzen du askotan, bollerok bikote heterosexual emulatzen ditugula, batak emakumearen rola duela bikotean, eta besteak gizonarena. Eta, umeak ditugunean, batek "ama" papera egiten duela, eta besteak "aita"rena, are gehiago femme/butch binomioa argia bada. Jende bat lasaitasun handia ematen dio bollera bikoteetan bi rol horiek daudela pentsatzeak: "A, oso ondo bi bollera egotea, gu bezalakoak diren bitartean". Heterosexualitatea kuestionatu beharrik ez dago horrela.

Umea sabelean hazi duena jo ohi dute *amagotzat* horrelakoetan —eta interesgarriak izan ohi dira disonantzia aurpegiak haurdundi dena maskulinoagoa denean—. Gure kasuan, gertatu izan zaigu umea Leireren besoetatik Maiderrenetara joan, eta "a, amatxorekin nahi du" entzutea, Leire ama izango ez balitz bezala, edo Maider *amago* balitz bezala.

Gorputz butchen, bollera maskulinoen iruditeria oso gutxi dago amatasunari, gurasotasunari lotuta. Jende batek segituan egiten du "bollera maskulinoa = gizona" ekuazioa, eta bereziki gizontasun jakin batekin lotzen du: umearen gauzak prestatzea ahaztuko zaizula pentsatzen du, harreman distantea edukiko duzula berarekin, "aita absenté"aren rola beteko duzula... Horrelakoak iradoki izan dizkigute.

Haurdun geratzeko prozesua luzea izan zenez, denbora asko eduki genuen hainbat gauzaren inguruaren pentsatzeko. Adibidez, nola izendatu nahi genuen geure burua. Eta erabaki genuen geure buruari *guraso* deituko geniola, *ama* terminoarekin ez ginelako identifikatuak sentitzen. Guretzat *ama* kontzeptuan mantentzen da oraindik fuerte *emakume* kontzeptua, eta gu ez gara guztiz identifikatzen *emakume* gisa; edo, bollera moduan, espazio problematikoa da guretzat —bide batez, interesgarria litzateke *ama* kontzeptuari buelta bat ematea, feministok *emakume* kontzeptuarekin egin dugun bezala—.

Aldi berean, bollera batzuek *ama* izendapena aldarrikatzen dute, hain justu hortik kanpo kokatu izan gaituztelako, bereziki bollera butchak. Guk ere, kasu batzuetan, *bi ama* erabiltzen dugu, iruditzen zaigunean politikoki horrek duela indar handiagoa, edo gure rollazoa esplikatzeak lekurik ez duean. Modu irekian bizi dugu kontua, eta ez diogu inori esan, adibidez, guri ez deitzeko *ama*, ez dugu arazorik horrekin, eta umeak ere berak erabakiko du zer nahi duen egin (erabaki sozialki baldintzatua beti, gureak bezala).

Iruditzen zaigu amatasunez hitz egiterakoan gaztelaniari begiratzen zaiola askotan, erreferente asko hortik datozena. Baino haien ez dute berba neutrorik, *maternidades* edo *paternidades* bakarrik, eta, horregatik, zentzua du maternidades hitz neutro gisa aldarrikatzeak. Euskaraz *gurasotasun* daukagu, eta iruditzen zaigu gaztelaniari gutxiago begiratu beharko geniokeela gai honetan eta gehiago ingelesari, haien ere *parent* dutelako, gai honi dagokionean gugandik hurbilago dagoen hizkuntza delako. Eta guk *gurasotasun* baino gehiago erabiltzen dutelako haien *parenting* testuinguru politikoetan (eta bestela ere).

HOMOLOGAZIO SOZIALA

Umea jaio zenetik, asko aldatu da gure onarpen soziala, bereziki familiaran, baina baita auzoan ere. Ordura arte, kasuren batean —zorionez, beste askotan ez—, gatazka bat zen bollera izatea etxekoekin, eta ordutik aurrera bat-batean badirudi gatazka desagertzen dela, eta zu geratzen zara urte pilo batean gorputzean eduki duzun amorrur horrekin zer egin eta norantz bideratu ez dakizula. Gainera, jakinda onarpen hori jasotzen duzula errepruduzitu zarelako, mandatu sozial bat bete duzulako. Auzoan ere leku bat egin digu umea jaio izanak. Urteak daramatzagu bertan bizitzen, baina orain agurtu egiten gaituzte, gurekin hitz egin...

Aldi berean, gutako bat herri txiki batekoa da, eta herriko jende askorentzat aukera bat izan da adierazteko ondo iruditzen zaiela gu bollerak izatea. Lehendik ere pentsatuko zuten, baina umea jaio denetik modua aurkitu dute adierazteko. Asko adin batetik gorako emakumeak dira, eta polita izan da.

UMEA NOLA IZENDATU

Hazkuntzaren inguruan erabaki asko hartu behar dira. Gure jardun politikoagatik, bizitza ulertzeko moduagatik, guretzat gai importante bat izan da nola izendatu umea, eta saiatzea ahalik eta ez binarioen hazten. Ikusi dugu neska edo mutila den ez esateak eragina duela gainerakoen begiradan, begirada hori kuitzen duela, eta gauza batzuk kuestionatzen lagundu dezakeela. Badago neutroan hitz egiten dion jendea, beti femeninoan hitz egiten diona eta beti maskulinoan egiten diona —neska edo mutila den ez esatearen ondorioa—, eta iruditzen zaigu aldakortasun hori ere badela halako neutro moduko bat sortzeko era.

Ez diogu inori esan nola zuzendu umeari, bakoitzak erabaki du nola harremandu berarekin, eta hitz egiten hasten denean berak esango du zer nahi duen. Hurbileko hainbat pertsonak horrela ari garenik jakin ere ez dakite, gaiari buruzko azalpenak eman baino gehiago egin dugulako gure erara jardun.

Ez azaltze horretan izan du eragina beste zerbaitek ziurrenik: umea ikuspuntu ez binario batetik hazteak sortu du gatazkaren bat inguruan, jende gehienak errespetuz hartu duen arren. Haerdunaldiko adibide bat jarriko dugu. Ezagun batek galdetu zigun ea mutila edo neska zen, eta esan genion ez genekiela. Orduan esan zigun: “A, baina gero jakingo duzue. Umea jaiotzen denean esango didazue zer den”. Eta guk ezetz, orduan ere ez genuela esan nahi, umearen esku utzi nahi genuela kontua. Berriro ekin zion, baietz, jaiotzen zenean jakingo genuela zer zen, eta guk ezetz. Tematu egin zen kontuarekin, ekin eta ekin, eta amaitu behar izan genuen gure identitateei buruzko azalpenak ematen: zer den bollera izatea guretzat, zer pertsona ez binarioa izatea... Gero jakin genuen berak lehenagotik zekiela nola hazi nahi genuen umea, lagun batek kontatu ziolako, eta hala ere guretzat deserosoa izan zen egoera hori sortu zuen. Antzeko gehiago gertatu zaizkigu.

Identitatearen autokontzientziari dagokionez, umea modu ez binarioan hazteko intentzioari lotuta, batetik, eta, bestetik, *ama / guraso* terminoen aukerari lotuta, atentzio handiagoa jarri diogu gure identitatearen kontuari. Zelan ez garen guztiz erosu sentitzen emakume izendapenarekin, zelan batzuetan ez binariotasunetik hurbilago ikusten dugun gure burua, zelan gauden hor, bi kontzep-tuen arteko espazio gatazkatsu batean.

GATAZKAK ETA ERREFERENTEAK

Gure egunerokotasuneko espazio batzuetan guraso bollerak izatea arrunta da. Espazio feministetan, LGTB+ espazioetan, adibidez. Beste batzuetan, aukera bat izan daiteke gauza batzuk mugitzeko, erreferentziak sortzeko.

Dena dela, zaila da batzuetan espazio batzuk aldatzea. Gure kasuan, kanpokoen begirada heteroa oso presente egon da prozesuko momentu batzuetan. Adibidez, gertatu izan zaigu erditze aurreko klaseetan, haurdun daudenentzako ariketan, “orain hartu eskua zure gizonari” modukoak entzutea, eta, hain bikote gutxi izanik gu ere kontuan hartzeko eskatu genuen arren, guretzat egoera de-seroso samarra zela esan genuen arren, hurrengo saioan gauza bera gertatu zen, eta esan ziguten nahi baguen guk etxearen egiteko ariketa bat pasatuko zigitela.

Bestalde, guretzat oso importanteak izan dira erreferenteak ze guraso klase izan nahi genuen pentsatzeko. Garrantzitsua izan da jakitea badirela beste asko guk baino lehen pentsatu dituztenak hemen aipatzen ditugun hauek denak, eta askoz gai gehiago. Ikupegi beretik, edo ikupegi ezberdin batetik, baina denok osatzen dugu elkar, eta denengandik ikasten dugu. Adibidez, Euskal Herriko hainbat lagun bollofeminista, Gorbeialdeko EHGAMeko kideak, Madrileko Familias Heterodisidentes kolektiboa, Bartzelonako lagun bollera, ama/aita trans eta kuirrak, Madrileko Vaciadorreko esperientzia, umerik ez edukitzea aukeratzen duten lagunak, ezin dutenak, kritikak egiten dizkigutzenak...

Horrez gainera, bidean importanteak izan dira erreprodukzioari buruz ikuspuntu kuir batetik ikertu duten lagunak, prozesu osoan ondoan izan ditugun lagun marikak... Bestelako familia eredu batzuk imajinatzeko aukera ematen digutenak, gure ikuspuntutik hurbilago daudenak, nahiz eta azkenean gu hirurok garen gure etxea osatzen dugunak —baina nork daki zer ekarriko digun etorkizunak—.

NARRATIBA HETERODISIDENTEAK

Askotan amatasunari / gurasotasunari buruzko narratibetan, bollerak, pertsona transak —ereditu diren aitak, adibidez—, kuirrak sartzen hasi dira, baina narratiba zisheteroa aldatu gabe. Bolleron kasuan, “ama eta aita” jartzen zuen lekuan, “ama eta beste ama” jarrita, aitak eta ereditu ez diren amak ber-dinduta, gurasoetako bat bestetasunera bidaliz, beti ereditu ez dena. Aldaketa txiki batzuk egin, oso-tasuna ez kuestionatzeko.

Baina bollerak ez gatoz errelato heteroan puntu apur bat diferente bat jartzera, puntu sinpatikoa, guk narratiba bera irauli nahi dugu, gure narratiba propioak eraiki.

Horretarako, gure artean elkartzea, kolektibotasuna guztiz beharrezkoak sentitzen ditugu, mingarria izan daitekeen hori indar bihurtzeko.

Amor de madre

Maria Romero Garcia / hd / color / 58 min. / España /



Este video surge de la necesidad de hablar con mis amigas, con las que he compartido y comparto crianza y con las que no. Tengo la suerte de haber encontrado comadres por el camino, haber creado comunidad frente a la soledad a la que muchas veces evoca la maternidad, en una sociedad que se construye a partir del modelo de la familia nuclear heterosexual. Hacemos política juntas, con lo personal, pero también generamos espacios públicos. Busco a otras mujeres, diferentes a mí, con otras experiencias de crianza, de maternaje, de proyectos de cuidados imbricados en la vida, que no contemplan la maternidad. Me preocupa la dificultad de crear espacios en los que personas con y sin hijxs sigan compartiendo la vida, me preocupa generar lugares estancos, tener dobles vidas, el ensimismamiento de la crianza, la culpa o la soledad.

Vislumbro el reto de volver a interconectar los diferentes planos de la vida, abrir espacios de comunicación entre las experiencias de unas y otras, visibilizar las historias de las mujeres, representarnos, cuestionarnos cómo y por qué cuidamos, quién cuida y quién es cuidada y reconciliarnos, tal vez, con nuestra genealogía familiar.

Hablamos y expongo mis dudas, porque para mí, la maternidad es algo así como una ambigüedad entre la pérdida de certezas y una seguridad visceral.

En las entrevistas, la pregunta de inicio es qué es para ti el amor de madre. Inevitablemente hablamos de nuestras madres, de nuestra infancia, de cómo nos afectaron sus modos de amar, de esa relación de la que hemos aprendido a estar orgullosas con el tiempo, de cómo nuestras madres son referentes y cómo las ponemos en cuestión.

Entre las diferentes experiencias, una maternidad que se confronta con las contradicciones políticas de la adopción, dotando de herramientas a las hijas y evidenciando el racismo; la vivencia de criar sin pareja que permite abrirse al mundo, intentando no perder la noción de lo importante del vínculo; las dificultades de quedarse embarazada y la complejidad dolorosa de esos procesos que a veces nos llevan a superar los límites de nuestros cuerpos y coyunturas; madres lesbianas y feministas que se encuentran con contradicciones ideológicas porque no queremos que ese amor sea el “más”, como el amor romántico y reivindicamos otros amores fundamentales; lo imprescindible de criar y cuidar desde diferentes ángulos, creando espacios colectivos con quienes no quiere maternar; la experiencia de una crianza intensa por la diversidad funcional en la que es fundamental reivindicar un aprendizaje colectivo como sociedad, poniendo los cuidados en el centro de la vida y reconociendo nuestra fragilidad.

Amor de madre es un proyecto documental para investigar sobre aquello que nos mueve a amar incondicionalmente a lxs hijxs y sobre el amor obligatorio que tenemos que sentir por ellxs. A través de una conversación polifónica, varias mujeres hablan de esto como un amor que te abre el pecho y te ilumina la cara, un impulso radical de sacar a delante a alguien, un aprendizaje lleno de potencia, resiliencia, una genealogía revisada, dolor que atraviesa la vida, deseo propio que convive y se conflictúa con la vida de lxs otrxs... y muchas cosas más.

Entrevistadas: Raquel Marques, Mari Chordà, Esther Vivas, Ana Álvarez Errecalde, Mercé Nebot, Cristina Vega, Alejandra Sánchez.

Amor de hijas

Maria Romero Garcia / hd / color / 18 min. / España /



El video Amor de hijas recoge los testimonios de varias personas que se han hecho el tatuaje: amor de madre. Surge de una búsqueda a través de redes sociales, carteles por las calles y del boca a boca. Surge de querer recolectar las historias que llevan a alguien a hacerse este tatuaje, tan connotado.

Hablamos de un tatuaje clásico, con tintes carcelarios, que remite a un amor muy atávico y que estas personas revisitan, dotándole de un sentido profundo y complejo alrededor de la relación que mantienen con sus madres.

El amor de madre funciona como un símbolo de un amor “total” y el ritual de tatuarse, como un modo de permanencia de una relación inevitable.

El video es un recopilatorio de experiencias, análisis del amor que las hijas tienen por sus madres, que pasa por muchos estadios, a veces contradictorios y controvertidos, por mucho cuestionamiento y cierta incondicionalidad y en algunos de los casos, por un aprendizaje mutuo fruto de la reciprocidad.



Amatasunen korapiloak askatzeko estrategia feministak

Emagineko kideoi garrantzitsua iruditzen zitzaigun jardunaldietan entzuteko eta ikasteko espazioekin batera hitza hartu eta bakoitzak bere iritzia emateko espazioak ere izatea. Haatik tartekatu genituen talde eztabaidek egitarauko beste momentuekin.

Ostiral arratsaldean, esaterako, taldeka aritu ginen galdera hauen bueltan: zer datorkizu burura amatasunean pentsatzean? Zein ondoez sortzen zaizkizu? Zein ongizate? Gogoeta pertsonal horiekin batera kolektibora ere zabaldu nahi izan genuen begirada eta horregatik heldu genion baita zein dira kolektiboki askatu nahi ditugun korapiloak? galderari ere. 12 korapilo identifikatu genituen bertan parte hartutakoentzat:

- [1] Iruditeria berriak: nolako erreferentziak behar ditugu? Nola indartu erreferentzia positiboak? (amatasunak, gurasotasunak, izeba biologiko eta ez biologikoak, sareak...).
- [2] Mugimendu feminista eta hazkuntza prozesuak: nola uztartu?
- [3] Erditzen diren gorputzen beharrak.
- [4] Gizonen absentzia.
- [5] Bakardade eta individualizazioaren aurrean, kriantza komunitarioa.
- [6] Ez-amatasun kontzienteak.
- [7] Erreprodukzio biologiko eta hazkuntza prozesuetan, zer utzi nahi dugu publikoaren/merkatuen esku? (ugaltze industria, zaintza zerbitzu pribatuak, osasun zerbitzu pribatuak...).
- [8] Nola aurre egin epai sozial, barne-epai eta erruduntasun sentimenduei?
- [9] Gure desioak eta hautuak problematizatzen (amatasuna, heterosexualitatea, bikotea, familia...).
- [10] Denboraren antolaketa (zaintza denborak, denbora produktiboak, autozaintza, ziklo erreprodukziboa...).
- [11] Mugimendu feministan zein espazio behar ditugu honi buruz hausnartzen segitzeko?
- [12] Gurasotasun bolleroak.

Hain zuzen, ostiraleko saioaren emaitza hori izan zen larunbateko talde eztabaideen abiapuntu. Bertran, aurreko egunean identifikatutako 12 korapiloen araberako multzoak osatu genituen eta talde bakoitzean hari muturrei buruz zein eremu bakotzean ditugun adostasun eta desadostasunez hausnartu genuen. Korapilo bakarra gelditu zen eztabaidea talderik gabe, zazpigarrena. Hurrengo orrialdean dagoena, larunbateko talde eztabaidea guztietan agertzen diren ideia komunen laburpen bat da.

OZTOPOAK:

- Exijentzia - epai sozialak
- Barneratutako bizi idealak
- Laguntza onartzeko zaitasunak
- Gizonen absentzia
- Lanaren sexu banaketa
- Ume “zailekiko” erresistentziak
- Familiarismoa / individualismoa
- Amatasunaren erromantizazioa
- Lanaldi hirukoitzak
- Desioen naturalizazio eraikia
- Prekarietatea
- Heteroaraua
- Enplegua / kapitalismoa
- Ama - ez ama arrakalak
- Eskolako materiala
- Indarkeria zuzena (obstetrikoa, arreta psikologiko eza...)

- *Inaktibo zaude!*
- *Eroso zaude!*
- *Hartu ardurak!*
- *Zure pribilegioak erabiliko dituzu?*
- *Zapaldo egiten nauzu!*
- *Autoritaterik ez, eskerrik asko!*
- *Dagokizuna egiteagatik lorerik ez*

GATAZKAK AZALERATU!


ONDORIOAK

- Erruduntasuna
- Abandonoa
- Bakardadea
- Hutsunea
- Shocka
- Ez ezagutza
- Beldurra



SARE KOMUNITARIOAK EGITURATU

familia
heteronormatiboa
deszentralizatu



NOLA?

- Familia eredu anitzak ikusaraziz
- Heldukeriaz ez jokatuz, haurrak subjektu gisa aitortuz
- Denborak egokituz
- Espazioak egokituz
- Kapital sozialik gabekoengana helduz
- Elkarmendekotasunaren ideia geuretuz
- Sareen eskuragarritasuna bermatuz
- Epaiaik borrokatz
- Ahizpatasuna indartuz / konfluentziak sortuz
- Militantzia espazioetan umeek parte hartuz
- Bikotearen / odolezko senideen monopolioa apurtuz
- Heteroaraua arrakalatuz
- Bizikidetza formula berriak arakatu
- Ez amatasunak ikusgarri eginez
- Elkar zaintzarako egiturak antolatuz
- Esperientzia elkartrukatuz
- Arnascguneak sortuz
- Mediokridadea aldarrikatuz

KOTXE ZURIA

Aspaldi ez dituela errepeide horiek zeharkatzen, baina dena berdin sumatzen du. Eguzkiak ere azken aldian bezala berotzen duela iruditzen zaio. Karreterak eta paisaiak txikitako irudiak ekartzen dizkiote gogora. Kamara geldoan pasatzen doaz erromero usaineko irudiak.

Bere burua ikus dezake kotxe zuri baten atzoko jarlekuan. Hantxe zegoen bera, erromero usaineko autoan bere izekorekin. Arnasa betean biak, gaur lotsa apur bat ematen dioten abestiak kantatzen. Gaur egun goitik behera dakizki eta zenbaitetan, isil-gordeka kantantzen ditu nahigabe.

Kotxe zuriko irudiak begien barrenetik pasatzen zaizkion bitartean, gidatzen jarraitzen du. Bapatean erretrobisoretik begiratu eta bere lobaren begiradarekin gurutzatu da. Irri egiten diote elkarri eta abesten jarraitu dute.

Kantua bukatzean eta “berriro” esan aurretik, haurrak, erretrobisoretik izekoren begietara begiratuz esan dio: “Izeko, nik haurrak baldin baditut, nor izango da beraien izeko?”

Mireia Delgado Exposito.



**Egin, desegin,
berregin**

desegin, Egin, berregin



emagin
**Formazioa eta
ikerketa
feminista**

LAGUNTZAILEAK: